

HIRU HIZKUNTZA GUTXITUREN  
EGOERA FRANTZIAN, DIAGNOSIA,  
FRANTZIAKO HIZKUNTZA POLITIKA

**Egilea:** Izaskun Zubitur

**Tutorea:** Andoni Barreña

# AURKIBIDEA

SARRERA.....	4.or.
1. FRANTZIAKO HIZKUNTZEN SAILKAPENA.....	5.or.
1.1. Metropoliko hizkuntzak.....	6.or.
1.2. DOM-TOM-etako hizkuntzak .....	7.or.
1.3. Frantziako metropoliko etorkinen hizkuntzak .....	8.or.
2. BRETOIERA.....	9.or.
2.1. Deskripzio demografiko linguistikoa .....	9.or.
2.2. Bretoieraren ezagutza .....	10.or.
2.3. Bretoieraren erabilera .....	13.or.
2.4. Hitzunen iritziak, nahiak hizkuntzarekiko.....	13.or.
2.5. Bretoieraren historia orokorra .....	14.or.
2.6. Hizkuntzaren arloz arloko egoera gaur egun .....	15.or.
2.7. Bretoieraren hizkuntza politika eta estatus juridikoa .....	19.or.
2.8. Bretoieraren beherakada. Bilakaera eta egoeraren eragileak.....	20.or.
2.9. Frantsesaren zabalkuntza: Irakaskuntzaren bidez.....	22.or.
2.10. Bretoieraren aldeko ahalegina: Diwan.....	24.or.
3. OKZITANIERA .....	26.or.
3.1. Deskripzio demografiko-linguistikoa.....	26.or.
3.2. Okzitanieraren ezagutza .....	27.or.
3.3. Okzitanieraren erabilera .....	29.or.
3.4. Hitzunen nahiak eta iritziak hizkuntzarekiko.....	29.or.
3.5. Okzitanieraren historia orokorra.....	30.or.
3.6. Hizkuntzaren arloz arloko egoera gaur egun.....	31.or.
3.7. Okzitanieraren hizkuntza politika eta estatus jurikoa.....	34.or.
3.8. Okzitanieraren beherakada. Arrazoiak, eragileak.....	35.or.
3.9. Frantsesaren zabalkuntza. Irakaskuntzaren bidez.....	37.or.
3.10. Okzitanieraren alde egindako ahaleginak. Les Calandretas.....	39.or.
4. KORSIKERA.....	42.or.
4.1. Deskripzio demografiko-linguistikoa.....	42.or.
4.2. Korsikeraren ezagutza.....	43.or.
4.3. Korsikeraren erabilera.....	44.or.
4.4. Korsikeraren historia orokorra.....	45.or.
4.5. Hizkuntzaren arloz arloko egoera gaur egun.....	46.or.
4.6. Korsikeraren hizkuntza politika eta estatus juridikoa.....	49.or.
4.7. Korsikeraren beherakadaren eragileak.....	50.or.
4.8. Korsikako egoera politiko bereziak korsikeran izan duen eragina. ....	50.or.
4.9. Korsikeraren itxaropena: irakaskuntza.....	52.or.

5. HIZKUNTZA GUTXITUEN EDO "LANGUES RÉGIONALES"EN  
INGURUKO HIZKUNTZA POLITIKA FRANTZIAN

5.1. 1951ko Deixonne Legea.....	54.or.
5.2. 1975eko Haby Legea.....	54.or.
5.3. 1975eko Bas-Lauriol Legea .....	55.or.
5.4. 1994ko Toubon Legea.....	55.or.
5.5. Hizkuntza politika irakaskuntzan.....	55.or.
5.6. Hizkuntzak eta gobernu administrazioa.....	56.or.
5.7. Ikusentzunezkoak.....	57.or.
5.8. Frantzia eta Europar Karta.....	57.or.
6. FRANTSESAREN ALDEKO POLITIKA .....	59.or.
7. ONDORIOAK.....	60.or.
INFORMAZIO ITURRIAK.....	62.or.

## - Irudien aurkibidea

1. irudia: Frantziako lurraldeak.....	5.or.
2. irudia: Frantziako metropoliko hizkuntzak.....	6.or.
3. irudia: Bretoieraren ezagutza orokorra.1997ko datuak.....	11.or.
4. irudia: Bretoieraren ezagutza adin-taldeen arabera, 1997.....	11.or.
5. irudia: Bretoieraren erabilera, 1997.....	13.or.
6. irudia: Bretoieraren erabileraren eboluzioa.....	21.or.
7. irudia: Okzitaniako dialektoak.....	26.or.
8. irudia: Okzitanieraren ezagutza, 1994.....	27.or.
9. irudia: Korsika uhartea. Kokapena.....	42.or.
10. irudia: Korsikeraren ezagutza orokorra, 1999.....	43.or.
11. irudia: Korsikeraren transmisioaren bilakaera.....	43.or.
12. irudia: Korsikeraren erabilera hurbilekoekin.....	44.or.

## SARRERA

Hasteko, sakontze-lan honen helburua zehaztuko dut. Frantziar estatuan dauden hiru hizkuntzen berri emango dut. Hizkuntza horiek korsikera, okzitaniara eta bretoiara dira. Hizkuntza horien ezagutza eta erabilera erakustea, denboran zehar izan duten bilakaera aztertzea, arloz arlo duten indarra islatzea eta hizkuntza horien alde egin direnak azaltzea izango da lan honen xede. Ez ditut hizkuntza bakoitzaren ezaugarri gramatikal eta linguistikoak azalduko.

Bestalde, ez da kasualitate hutsa estatu bereko hizkuntzak aukeratzea. Frantziar estatuko hizkuntzak aukeratu ditut, interesgarria iruditu baitzait Frantziar estatuak hizkuntza mehatxatuen bilakaeran izan duen eragina aztertzea. Hori dela eta, hizkuntza gutxitu hauen bilakaerak puntu bat baino gehiago dute komunean. Egoerari aurre egiteko orduan ere antzeko bideetatik jo dute denek, jarraian ikusiko den moduan.

Beste alde batetik, terminologia kontu bat aipatu nahi nuke. Erabili dudana informazio kopuru handiena frantsesez egon da eta Frantziako iturri desberdinetatik ateratakoa da. Informazio iturri gehienetan ez da "hizkuntza gutxitu edo mehatxatu" espresioa erabiltzen Korsikako, Bretaniako, Alsaziako etab. hizkuntzei buruz hitz egiteko orduan. Frantsesek ez dute aitortu nahi "gutxitu edo minoritate historikorik" dagoenik Frantzian, politikoki zuzena ez den terminologia mota da aurrekoa. Beraien ustez ez dago minoritaterik "guztiak frantsesak" direlako. Hori dela eta, "langues regionales" espresioa erabiltzen dute hizkuntza hauei buruz hitz egiteko. Nire lana egitean, ordea, frantsesa ez den beste hizkuntzei buruz mintzatzean, "eskualdeko hizkuntzak" "tokian tokiko hizkuntzak" espresioak erabili ditut frantsesek "langues régionales" deitzen diotenak izendatzeko. Hala ere, askotan nahiago izan dut hizkuntza gutxituei buruz aritu, izaera propioa duten hizkuntzak baitira, eta zoritxarrez frantsesaren ondoan gutxitu edo minoritarioak.

Informazioa eskuratzeko aukeratu dudana iturri nagusia internet izan da. Bertan aurki dezakedan liburuen bibliografia mugatua dela ikusi dut. Interneten bidez landu ditudan hizkuntzetako orrialde desberdinetan sarbidea izan dut, eta informazio eguneratua aurkitu ahal izan dut. Hala ere, zenbaitetan informazio iturri guztiek ez dute bat egiten, eta beraz, gehienetan nagusi diren datuetan oinarritu naiz. Hizkuntzaz hizkuntzako informazioa ematen duten orrialdeak aurkitu ez ezik, ikuspegi orokorra eta eskema paralelotan denen egoera azaltzen duten orrialderik ere aurkitu dit. Honek guztiak lanaren ikuspegi orokorragoa izaten lagundu dit.

# 1. FRANTZIAKO HIZKUNTZEN SAILKAPENA

Frantziak osotara 96 departamentu metropoliar ditu, 21 "région" edo eskualde metropolitarretan banatuak. Horrez gain, Frantziaren menpe daude DOM-TOM deituriko lurak. Hasteko lau DROM (départements d'outre-mer, gaur egun Regions monodépartementales deiturikoak) ditu Frantziak: Martinika, Guadalupe, Guyana eta Réunion. POM deiturikoek, berriz, "pays d'outre-mer au sein de la République" esan nahi dute, alegia, itsasoz bestaldeko herrialdea, baina Errepublika barnean dagoena, eta hauek Kaledonia Berria eta Polinesia dira. TOM (territoire d'outre-mer) multzoaren barnean berriz lurralde australak eta frantziar Antartika sartzen dira. Azkenik COM deiturikoak (collectivités d'outre-mer) ditugu: Korsika, Mayotte eta Sait-Pierre-et Miquelon; hauen artean ere bereizketa ugari dago. Ikusten denez, banaketa nahiko hierarkikoa da. Lurralde guztiek dituzten eskumenak ez dira berdinak.



1. irudia. Frantziako lurraldeak ( Iturria: [www.tlfq.ulaval.ca/AXL/europe/france](http://www.tlfq.ulaval.ca/AXL/europe/france))

Frantziako populazioa 1998an 58,6 milioi biztanlekoa zen. Kopuru hori 2004. urtean 61,4 milioikoa izango zela kalkulatu zen. Biztanleriaren %82k du frantsesa ama-hizkuntza legez, baina beste askok "hizkuntza erregionalen bat" ikasi du lehenik ([www.tlfq.ulaval.ca/AXL/europe/france](http://www.tlfq.ulaval.ca/AXL/europe/france)).


"Hizkuntza erregional" adierazpidea erabili dut memento honetan, frantsesek horrela deitzen baitiete Frantzian hitz egiten den eta frantsesa ez den gainerako hizkuntzei. *Minoritate nazionalak, minoritate historikoak eta hizkuntza minoritario edo gutxiak* hitzak ez dira zuzenak frantsesen politika hiztegian. Frantsesek ez dituzte onartzen eta "erregional" adjektiboa erabiltzen dute frantsesa ez den guztia deskribatzeko. Nolanahi ere, nik "gutxitu" adjektiboa erabiliko dut, frantsesaren indarraren aurrean egoera horretan aurkitzen baitira hainbat hizkuntza, gutxiak, babesik gabe, menperatuta.

Frantzia da, beraz, Italiaren eta Errusiaren atzetik bere lurralde esparruan hizkuntza gehien duen Europako herrialdea. Hizkuntza hauetatik bi heren DOM\_TOM

lurreldeetan hitz egiten da, 50 hizkuntza inguru guztira. Dozena bat baino goragoko hizkuntza kopurua erabiltzen da berriz, Frantziako metropolian.

## 1.1. METROPOLIKO HIZKUNTZAK

Metropoliko hizkuntzak, besteak beste, hauek dira: alsaziera, euskara, bretoiera, katalana, korsikera, frantzikera, mendebaldeko flandesera, franko-probentzera eta okzitania dira. Horrez gain, oïl hizkerak (franc-comtois, wallon, picard, normand, gallo, poitevin-saintongeais, bourguignon-morvandiau) daude.



Hizkuntza hauetaz gain, Frantzian badira beste hizkuntza batzuk, etorkinen hizkuntzak dira honakoak: arabiera, berbera, yiddish hizkuntza, armeniera eta abar.

Jarraian metropoliko hizkuntza gutxitu nagusien ezagutza datu orokorrak emango ditut. Hala ere, azpimarratu beharra dago zaila dela hizkuntza hauen hiztun kopurua zehaztea, iturri desberdinetako informazioa ez baita beti bera. Hala ere erreferentzia gisa, "France-Presse" ajeztiako datuak (1999) erakutsiko ditut:

2.irudia. Frantziako metropoliko hizkuntzak  
( Iturria: [www.tlfq.ulaval.ca/AXL/europe/france](http://www.tlfq.ulaval.ca/AXL/europe/france))

<b>Alsaziera</b>	1,7 milioi biztanletik <b>900 000 hiztun</b>
<b>Bretoiera</b>	1,5 milioi biztanletik <b>240 000-370 000 hiztun</b> ; mende hasieran 1,2 milioi hiztun zituen.
<b>Okzitania</b>	14 milioi biztanletik <b>2 milioi hiztun</b> ; 1920. urtean 10 milioi hiztun zituen
<b>Euskara</b>	Ipar Euskal Herrian 260 000 biztanletik <b>40 000- 67 000 hiztun</b> ; mende hasieran biztanleen ia %100a euskalduna.
<b>Korsikera</b>	250 000 biztanletik <b>100 000-150 000 hiztun</b> ; mende hasieran ia denek zekiten korsikeraz.
<b>Katalana</b>	Ekialdeko Piriniotako 370 000 biztanletik <b>% 34k</b> katalanez hitz egiten dakiela esan du.

( Iturria: France-Presse, 1999)

Frantziako hizkuntza gutxitu "indartsuenen" hiztun kopurua zehaztu eta gero, labur-labur azalduko ditut Frantziako hizkuntzak eta hizkuntza familiatan sailkatuko ditut:

### 1.1.1. Hizkuntza germanikoak

1.1.1.1. Alsaziera: 900 000 hiztun 1,7 milioi biztanletik. Alsaziarren erdiak normalean alsazieraz hitz egiten duela dio. Frantzia ekialdean erabiltzen den hizkuntza, Alemaniako mugan.

1.1.1.2. Frantzikera: 1962an 360 000 hiztun zituen; gaur egun 78 000 hiztun. Ekialdeko hizkuntza hau ere, Mosellako departamentuan bizi dira hiztun gehienak. Transmisioa egunez egun eteten ari da, 15 urtetik beherakoen %20k bakarrik ezagutzen baitu hizkuntza. Bere garaian frantzikerak frantsesan eragina izan zuen, besteak beste, frantsesak frantzikera jatorriko 400 hitz ditu bere hiztegia.

1.1.1.3. Flandesera: 20 000-40 000 inguru hiztun ditu Frantziako iparraldeko departamentuan, 4 milioi biztanle dituen departamentuan. Frantzian hitz egiten den flandesera nederlandieraren dialekto bat da, zein Belgikako Flandesen eta Holandan erabiltzen den.

1.1.2. **Hizkuntza zeltikoa: bretoiera.** (240 000- 370 000 hiztun). Jarraian landua.

### 1.1.3. **Hizkuntza latindarrak**

1.1.3.1. Korsikera. 250 000 biztanletik 150 000 hiztun. Italiararen familiakoa. Jarraian landua.

1.1.3.2. Okzitaniera. 2 milioi inguru hiztun 14 milioi biztanletik. Jarraian landua.

1.1.3.3. Katalana. Hizkuntza erromantzea. Frantzia hegoaldean dagoen Sortaldeko Piriniotako departamentuan mintzatua. 126 000 hiztun ditu eta 370 000 biztanle departamentuan. Katalana ofiziala da Andorra eta Katalunian.

1.1.3.4. Franko-probentzera. Saboia eta Iserko departamentuko hizkuntza erromantzea da. Departamentu hauetaz gain, Suitzan eta Aosta Haranean ere mintzatzen da. Franko-probentzeraren hiztun kopurua zehaztea zaila den arren, sei milioi biztanletik 60 000 hiztun inguru dituela uste da, gehienak 60 urtetik gorakoak. Hizkuntza hau desagertzeaz dago Frantzian, baita Suitzan ere.

1.1.3.5. Oïl hizkerak. Gaur egun oïl hizkuntzek oso hiztun gutxi dituzte, eta hizkuntza hauetatik gehienak desagertu egin dira. Batzuek hizkuntzatzat dituzte, besteek, berriz, frantsesaren dialektotzat. Hala ere hizkuntza talde desberdineko hiztun batzuek ez dute elkar ulertzen askotan. Hauek dira oïl hizkerak: picard, gallo, poitevin, saintongeais, normand, morvandiau, champenois, wallon, lorrain, franc-comtois, bourguignon.

1.1.4. **Euskara**. Hizkuntza aurreindoeuroparra. Ez du ahaiderik, guk dakigularik. Iparraldean 260 000 biztanletik 40 000-67 000 hiztun dira. Hegoaldean euskarak babes handiagoa duela esan daiteke.

## 1.2. *DOM – TOM-ETAKO HIZKUNTZAK*

### 1.2.1. **Itsasoz bestaldeko departamentuak. Départements d'outre-mer (DOM)**

Itsasoz bestaldeko departamentuetan (Martinika, Guyana, Guadalupe eta La Reunion) familia desberdineko hizkuntzak bereizi behar dira. Badira **frantsesezko hitzetan oinarrituriko kreolera** (martinikar kreolera, guadalupeko kreolera, guyanako kreolera, eta Reunioneko kreolera), **bushinengear kreolera**, hitz ingeles eta



portugaldarretan oinarritua (saramaca, aluku, njuka, paramaca), eta Guyanako **hizkuntza amerindarrak** (galibi edo kalina, wayana, palikour, arawak, wayampi, eta emerillon).

### 1.2.2. Itsasoz bestaldeko herrialdeak. Pays d'outre –mer (POM)

Kaledonia Berrian 28 hizkuntza **kanake** dago, austronesia familiakoa: (nyelâyu, kumak, caac, yuaga, jawe, nemi, fwâi, piye, pwaamei, pwapwâ, Voh-Koné-ko dialektoak, cêmuhi, paicî, ajië, arhâ, arhö, ôröwe, neku, sîchë, tîrî, xârâcùù, xârâgùrè, drucéa, numèè, nengone, drehu, iaai, fagauvea).

Frantziako Polinesiar honako **polinesiar hizkuntzak** daude: tahitiera, markisiera, Tuamotuko hizkuntzak, hizkuntza mangareviera, Raturuko hizkuntza, Ra'ivavae hizkuntza, Rapa ko hizkuntza.

### 1.2.3. Lurralde kolektibitatea. Collectivités territoriales (COM)

Ozeano Indikoan, Mayotten, **bantu familiako** hizkuntzetan hitz egiten da: shimaoré eta shibushi hizkuntzak. Wallis eta Futuna artxipelagoan **austronesiar familiako** wasiliar eta futuniar hizkuntzak daude.

Beste bi COM lurraldeak Korsika eta Saint-Pierre-et-Miquelon dira. Korsikera jarraian landuko da.

## 1.3. FRANTZIAR METROPOLIKO ETORKINEN HIZKUNTZAK

Frantzian, gutxi gorabehera, 10 milioi etorkin eta atzerritar bizi dela uste da. Europako beste herrialdeetatik zetozen 1990. urte arteko etorkin gehienak. 1990. urtetik aurrerako etorkin gehienek bestelako jatorriak dituzte.

Honela zatitzen zen 1996an etorkinen portzentaia: %28,5 marokoa, %19,7 aljeriarra, %18,6 turkiarra, % 6,3 tunisiarra, %2,58 txinatarra, %1,98 poloniarra, %1,85 haitiarra, %1,68 senegaldarra etab.. Etorkin gehienak hiri handietan bizi dira, batez ere Parisen ([www.tfq.ulaval.ca/AXL/europe/france](http://www.tfq.ulaval.ca/AXL/europe/france)).

Etorkin asko izateak hizkuntza gehiago egotea ekarri du. Beraz, 660 000 hiztunek hitz egiten dute Aljeriako arabiera, 492 000 hiztunek Marokoko arabiera, 212 900 hiztunek Tunisiako arabiera, 537 000 hiztunek kabylea (berbera), 150 000 hiztunek tamazighta (berbera), milioi batek italiara, 260 000 hiztunek espainiera, 150 000 hiztunek portugesa, 150 000 hiztunek kreolera, 135 000 hiztunek turkiera, 70 000 hiztunek armeniera, 40 000 hiztunek iraniera, 50 000 hiztunek khmerera, 35 000 hiztunek wolofera, 10 000 hiztunek vietnamitera...(INSEE, Institut National de la Statistique et des Études 2002)

Honek guztiak azaltzen du Frantziako egoera linguistiko plurala. Ikusi dugunez frantsesa eta metropoliko nazio desberdinetako hizkuntzez gain itsasoz bestaldeko lurraldeetako hizkuntzak eta etorkinen hizkuntzak daude. Hala ere, lan honetan metropoliko nazio edo herrietako hiru hizkuntzen egoera deskribatuko dut eta Frantziako gobernuak horien aurrean duen jarrera eta politika azaldu.

## 2. BRETOIERA

Gaur egun Britainian jende guztiak badaki frantsesez, hala ere, ez da betiko kontua hori. Gustave Flaubertek eta Maxime du Camp-ek 1847an Britainiara egindako bidaiari, Raz-eko lurmuturrean ez zuten frantsesez zekien inor aurkitu eta "Polonian baino galduago sentitu ziren. Ez zuten inor ulertzen eta inork ez zuen frantsesa ezagutzen". Beranduago, 1902.ean, sermoiak bretoieraz egitea debekatu zen. Garai hartan oraindik orain Behe-Britainiako biztanleen %50a bretoieradun elebakarra zen ([www.langue-bretonne.com](http://www.langue-bretonne.com)).

1950. urte inguruan, Lehen Mundu Gerra pasa ostean, 1 100 000 bretoieradun zegoen, Britainiako biztanleriaren %75 inguru. Ondoren, mende erdian zehar beherakada sekulakoa izan da: 1990. urtean egindako lehen datu bilketen arabera, 15 urtetik gorako biztanleak kontuan hartuta, %21 ziren bretoieradunak, 250 000 pertsona inguru ([www.langue-bretonne.com](http://www.langue-bretonne.com)).

Ikusten denez, bretoieraren erabilera izugarri jaitsi da. Britainiako bilakaera linguistikoa goitik behera aldatu da 150 urtetan. Jarraian, datuak azaldu eta beherakada horren zergatiak azaltzen dituzten gertaerak erakutsiko ditut.

### 2.1. DESKRIPZIO DEMOGRAFIKO LINGUISTIKOA

Britainia itsasoak inguratutako lurralde bat da, penintsula bat. Mantxa iparraldean du, atlantiar ozeanoa mendebaldera eta Bizkaiko golkoa hegoaldera.

Britainia ekialdea eta kostako lurraldeak aberatsak dira, lur hauetan nekazaritza garrantzitsua da eta. Barazkiak, txerriak eta esnekiak dira nekazal produkturik esportatuenak.

Hiri garrantzitsuenak Nantes/Naoned eta Saint-Nazaire/Sant Nazer dira, hego-ekialdera, Loiraren itsasoratzean kokatuta. Hiri hauek merkataria dira batez ere. Hala ere, hiri hauek ez dira gaur egun Britainiako lurraldekoak ofizialki; gaur egun Britainiak lehengo 5 departamentu historikoetatik 4 baititu. Rennes/Roazhon da Britainiako hiriburua Erdi Aroaz geroztik. Hiriburu administratibo eta militarra da. Bertan daude bai Renneseko Unibertsitatea, bai Britainia Garaiko Unibertsitatea (Université de Haute-Bretagne). Rennes hiriburuak 250 000 biztanle ditu, eta horietatik 60 000 ikasleak dira. Brest eta Lorient/An Oriant-en kokatzen dira merkatal portuak eta portu militarrik.

Britainiak 1990. urteko erroldaren arabera 3 847 000 biztanle zituen. Horietako 1 052 000 biztanle Loire-Atlantique departamentuan bizi dira. Departamentu hau oso hiritartua badago ere, ez da lurralde administratiboko zatia.

Britainiako 4 departamentuetako biztanleak nekazariak dira %43ko portzentzian. Biztanleen %15a nekazal lurraldean bizi da, %28 lurralde erdi hiritartuan, hau da, 10 000 biztanletik beherako herrietan; %22a 50 000 biztanle baino gutxiagoko

hirietan eta %35 bizi da hiri handietan, Rennes eta Brest hirietan esaterako (INSEE, Institut National de la Statistique et des Études, 1994).

Bretoiera ez da hizkuntza nagusia herri bakar batean ere. Hala ere, Bretainiako barrualdeko herri batzuetan hizkuntzaren erabilerari eusten zaio. Transmisioa ere ez dago oso zabaldua. Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa nekazal eremuetara mugatzen da batik bat.

Behe Britainia (Breizh Izel), hau da, nazioaren mendebaldeko zatia da bretoieraren eremu nagusia, eta 1 514 000 biztanle ditu. Biztanle kopuru hau nahiko egonkorra da, baina bretoiera erabiltzen den eremuetan heriotza tasa nahiko altua da. Nekazal eremuak bertan behera uzteak eta kostako hiri handien hazkuntza azkarrak bretoieraren eremua hustutzea ekarri du. Bretoieraz hitz egiten den nekazal lurraldeetan beste lurraldeetan baino ekonomia maila apalagoa dago, eta beraz, migrazioak eragin handia izan du bertan.

Gerra aurretik frantsesa jakitea ezinbestekoa zen lanpostu ona lortzeko, hori dela eta bretoierak prestigioa galdu zuen.

Ikerketen arabera, bretoieraz hitz egiten den eremuetan biztanleen %5a bakarrik omen da bretoieraz hitz egiten ez den eremuetatik etorritakoa (INSEE, Institut National de la Statistique et des Études, 1994). Hala ere, ikerketek ez dute zehazten zein komunitate linguistikoetakoak diren etorkin horiek.

Bestalde, hegoaldeko kostaldean bretoieraren beherakada izugarria izan da. Gertaera horren arrazoi nagusiak honakoak dira: oporretako etxeak etengabe eraikitzea, turismoaren gorakada eta Vannes/Gwened-Auray/Alre-Concarneau/Konkernev inguruko jabetzak izugarri garestitzea, besteak beste.


Oporretako etxeetako jabeen eta turistaren kopurua ez da inon erregistratzen, ez dago biztanleriaren kopuruaren barnean, beraz bretoieraren inguruko datuak ezkorragoak direla esan dezakegu. Etxebizitzen %14a bigarren mailakoak dira, hau da, jabeek ez dute eguneroko bizitza bertan egiten.

Hiztun bretoieradunen soldata batez bestekoarena baino apalagoa da, arrantzaleak, nekazariak... baitira batik bat. Bretoieraz gehien hitz egiten den eremuko maila ekonomikoa ez da gainerako lurraldeetako bezain indartsua.

## 2.2. BRETOIERAREN EZAGUTZA

“Bretoieraz hitz egiten badakizu?” galderaren aurrean, 1997ko inkestek egonkortasuna erakutsi dute. Inkestatutako pertsonen artean, %20k adierazi du bretoieraz “oso ongi” edo “nahiko ongi” mintzatzen dela. Beraz, gaur egun 240 000 bretoieradun daude, 15 urtetik gorakoak bederen. Datuak egonkorrek direla esan daiteke, 1990etik 1997ra ez baita aldaketa handirik gertatu. Aldi berean kezkarriak dira datuok, bretoieradunen komunitatea zahartzen ari baita.

Bestalde, inkestatutako pertsonen ia laurdenak (%23) dio bretoieraz zerbait dakiela, ez gehiegi. Gainerakoek, % 57k ez dakite bretoieraz. Beraz, bretoien %80 hiztun frantses elebakarrak direla esan dezakegu (TMO Etudes de marché, enquêtes et sondages, 1997).



3. irudia: Bretoieraren ezagutza orokorra.1997ko datuak. (Iturria: TMO, 1997)


Hala ere 1999. urtean INSEE (Institut National de la Statistique et des Études) ikerketa taldeak egindako laneko datuak kezkarriagoak dira: %8,5 biztanlek soilik hitz egiten du bretoieraz eta.

### 2.2.1. Bretoieradunak zahartuz

Datu hauek ordea nahiko orokorrak dira. Adin taldekako sailkapena egitea interesgarria da hizkuntzaren etorkizuna nolakoa izan daitekeen aurreikusteko. Hau da, gazteen erabilera neurtzeko. Bretoieradunen %50 60-74 urte bitarteko adinekoak dira. Bretoieradunen %17a berriz 75 urtetik gorakoak dira. Beraz, bretoieradunen 2/3 60 urtekoak eta hortik gorakoak dira, beraiek osatzen dute bretoieradun kopuru osoaren zatirik handiena.

Gazte gutxi da bretoieraduna. Hizkuntza-transmisioa eten egin da, izan ere, 15-19 urte bitarteko %0.5 besterik ez da bretoieraduna. Zaharragoen artean (20-39 urte bitartekoetan), berriz, kopurua handitzen bada ere, portzentaiak txikia izaten jarraitzen du, %5. Helduen adin tartean (40-59 urte), berriz, hiztunen kopurua %28koa da (CSA-TMO (Etudes de marché, enquêtes et sondages), 1997).

Gerraosteko urteak oso erabakiorrak izan ziren bretoieraren transmisioaren etenean. 1950. urte inguruan bertako biztanleen ama hizkuntza nagusiki bretoiera zen, nekazal eremuan bederen. Handik aurrera, ordea, frantsesak hartu zuen bretoieraren lekukoa baita etxeko erabileran ere.



4.irudia: Bretoieraren ezagutza adin-taldeen arabera, 1997. (Iturria: CSA-TMO (Etudes de marché, enquêtes et sondages), 1997)

## 2.2.2. Bretoieraren ezagutza idazmenean eta irakurmenean

### 2.2.2.1. IRAKURMENA

Ezaguna da bretoiak euren hizkuntzan alfabetatugabeak direla dioen kontua, hau da, irakurri eta idazten ez dakitela dioena. Hala ere, 1991. urtean egindako inkestetan %10,5ek irakurri ahal duela agertzen da. Hau da, hiztunen erdia euren hizkuntzan irakurtzeko gai dela (Institut TMO (Etudes de marché, enquêtes et sondages), 1991).

1997ko emaitzak hobeak dira hala ere. Inkestatuen %15,5ek irakurtzeko gai zela baieztatu zuen, 180 000 pertsona gutxi gorabehera. Honakoa esan nahi du aurrekoak: bretoien 3/4a euren hizkuntzan irakurtzeko gai direla (Institut TMO, 1997).

Datuak jakiteaz gain, garrantzitsua da emaitza hauen nondik norakoak aztertzea, hau da, nola alfabetatu diren jakitea. Autoikaskuntza edo autoalfabetazioa oso garrantzitsua izan da. Izan ere, alfabetatuen erdiak euren kabuz edo gurasoen laguntzaz ikasi dute bretoieraz irakurtzen. Irakurtzen dakitenen %20k eskolan edo bestelako klaseetan ikasi du bretoieraz irakurtzen, eta %22ak katekesian. Azken metodo hau zaharren artean zabalduena da, baina 1930-40 urteen artean gertatu zen katekesian bretoieraz aritzeko etena ([www.uoc.es/euromosaic/document/breto](http://www.uoc.es/euromosaic/document/breto)).

Nahiz eta Britainiako biztanleen %15,5 bretoieraz irakurtzeko gai dela esan, datuak nahiko erlatiboak dira. Xehetasunetan sartuz gero datu nagusiari ñabardurak egin behar zaizkio.

Bretoieraz irakurtzen dutenen artean, %8k dio oso erraz irakurtzen duela; %25k dio nahiko ongi irakurtzen duela eta %31k, berriz, zenbait zailtasun ditu irakurtzeko. Portzentaia handi batek, ordea, %31k, zailtasun handiak ditu irakurtzeko.

Beraz, gehiengoak (%62k), zailtasunak ditu irakurtzeko. Honek guztiak datuak dezente mugatzen ditu, eta alfabetizazioa hain zabaldua ez dagoela frogatu ahal da (TMO, 1997).

Bestalde, ezagutzaz gain bretoierazko testuak zein maiztasunaz irakurtzen duten galdetuz gero, datuak negatiboagoak dira. Izan ere %4k esaten du maiz irakurtzen duela bretoieraz, %5ak batzuetan irakurtzen du, eta %27k noizbehinka. Gehienek ordea ez dute gehiegi irakurtzen bretoieraz. Bretoieradunen %40k aitortu du gutxitan irakurtzen duela bretoieraz, eta % 23k berriz, esan du inoiz ez duela bretoieraz irakurtzen (TMO, 1997).

Datu hauek guztiak kontuan hartuta, ikus daitekeenez, irakurtzen dakitela diotenen 2/3ek oso gutxitan edo inoiz ez du irakurtzen.


### 2.2.2.2. IDAZMENA

Bretoieraz idazteko gaitasuna neurtzeko, lehenik bretoieraren ortografia eta idazkera guztiz garatu gabe dagoela eta denborarekin batera aldatuz doala esan behar da; oraindik finkatzeke dago. Hala ere, idazmen gaitasuna nolakoa den neurtzea interesgarria da. Honela bada, 1991n %4,5ek bretoieraz idazten zekiela adierazi zuen, bretoieraren idazkeraren bilakaera kontuan izanik, datu nahiko positiboa da. 1997.ean berriz, portzentaia hazi egin ziren, %8ak esan zuen bretoieraz idazten zekiela.

Hala ere, datuok positiboak diruditen arren, zorrotz aztertu beharrekoak dira, irakurmenean gertatu den bezala errealitatea bestelakoa izan baitaiteke. Honela bada, %80k erdizka idazten duela adierazi du, beraz, 20 000 pertsonak baino ez dute ongi idazten bretoieraz.

## 2.3. BRETOIERAREN ERABILERA

Bretainiako biztanleek zein hizkuntzetan hitz egiten duten jakiteko inkestak egin ziren (INSEE 1994, TMO 1991, 1997). Datu nagusi hau baieztatu ahal izan da: bretoiera noizbehinka erabiltzen den hizkuntza da, baita hizkuntza txikitatik ezagutzen dutenen artean ere. Bretoieraz frantsesez baino gehiagotan hitz egiten dutela esaten dutenen kopurua hiztunen %12a dira soilik. % 10ek dio bretoieraz frantsesez bezain beste hitz egiten duela, eta hiztunen %77k onartzen du frantsesa maizago erabiltzen duela bretoiera baino.



5. irudia: Bretoieraren erabilera, 1997. (Iturria: TMO, 1997)

Hala ere, mintzataldearen ezaugarrien arabera, erabilera hizkuntza batean edo bestean izango da. Hau da, elkarrizketa batean hiztun guztiak bretoieraz badakite, %80ko aukera dago bretoieraz hitz egiteko. Aldiz, nahikoa da elkarrizketan bretoieraz ez dakien bat egotea frantsesezkoa izateko mintza-jarduna.

Beste hiztun bati lehen hitza egiteko garaian, hizkuntza aukeraketa aldatu egiten da hartzailearen adinaren arabera. Hiztun gehienak adinekoak direnez, gazteei zuzentzeko orduan lehen hitza frantsesez egiten dute. Aldiz, adineko pertsona bati zuzentzerakoan bretoieraz hitz egiteko ohitura dute hiztunek (%85eko probabilitatea).

## 2.4. HIZTUNEN IRITZIAK, HIZKUNTZAREKIKO NAHIAK

TMO-Régions-ek 1997an egindako galdetegietan, Bretainiako biztanleei euren hizkuntzari buruzko iritzia eta nahiak adieraztea eskatu diete. Hauek dira emaitza nagusienak:

1. Argi dago bretoiek euren hizkuntzarekiko lotura sentitzen dutela, euren hizkuntza dela uste dute, eta ez dute desagertzerik nahi. Gehienak bretoiera kontserbatzearen aldeko dira. Bretoieraren aldeko argudioak honakoak dira: beraien

nortasunaren adierazle da hizkuntza, beraien hizkuntzak bizirautea garrantzitsua da, polita, sentimentuak adierazteko egokia dela adierazten dute.

Hizkuntzaren kontra daudenek aldiz argudio hauek eman zituzten: Bretoieraren antzutasuna, etorkizunik ez edukitzea.

2. Bretoiek euren hizkuntzarekiko atxekimendua sentitzen dute baina ez dute oso jarrera sutsua erakusten. Ez dira gehiegi inpliketzen euren hizkuntza berreskuratzeko orduan. Hizkuntzari, %25ek ematen dio garrantzia handia. Bretoien erdiak du soilik itxaropena hizkuntzaren etorkizunean.

3. Gaur egungo eguneroko ekintzetan bretoieraren beharraz galdetuta, honakoak dira emaitzak: %2ak soilik esaten du bretoiera beharrezkoa dela Britainian bizitzeko. Bretoi gehienek uste dute ez dela beharrezkoa euren hizkuntza jakitea Britainian ongi moldatu ahal izateko. Hala ere, iritziak aldatu egiten dira galdeketa egiten den eremuaren arabera; iritziak desberdinak dira Britainia Garaian eta Behe Britainian. Bretoiera kontserbatzearen aldeko jarrera handiagoa dago Britainia mendebaldean.

4. Eskola edo ikastetxea hizkuntza berreskuratzeko tresna nagusia dela uste dute, gazteei hizkuntza irakasteko baliabiderik garrantzitsuenak. Hala ere, arlo honetan ere iritziak ez datoz bat errealitatearekin: %34k pentsatzen du bretoiera ikasteak derrigorrezkoa izan beharko lukeela, bretoiera salbatzearen. Hala eta guztiz ere norberaren inplikazioa falta da, eta gaztelera, ingelesa eta alemana jakiteari garrantzia handia ematen diote.

5.- Bretoiek oniritzia ematen diote errotulazio elebiduna edukitzeari dendetan, aeroportuetan, geltokietan eta abar. Hala ere, lantoki edo enpresetan errotulu elebidunak jartzeko derrigorzuzko traba gehiago jartzen dizkiote.

## 2.5. BRETOIERAREN HISTORIA OROKORRA

Bretoiera hizkuntza zelta da, eta beraz, hizkuntza indoeuroparra. Bretoiera intsularra dela esan daiteke, zelta kontinentala ez bezalako, eta galesaren eragina duena. Bretoiak bi herri desberdinen arteko nahasketa direla esan izan da: Armorikako herriarena eta britanikoz mintzatzen zen zelten herriarena. Badakigu britaniar zelten herria VI. menderako britaniar penintsulan bizi zela. Toponimiako arrastoek baieztatzen dute gertaera hori.

Erdi Aro hasieran Britainiak erreinu zeltiar kontinental gisa funtzionatzen zuten, baina Gales eta Kornuailleseko herriekin kontaktu handia zuten. Beranduago, sartaldeko Europa kontinentalean zeuden herriekin harremanak gero eta handiagoak izaten hasi ziren, batez ere frankoekin. Errealitate geopolitiko honek eta Britainia Handiko distantzia geografikoak hizkuntzaren izaera aldatu zuten. Britainia Handiarekin izandako loturak urrunduz joan ziren.

Britaniako hizkuntza Gales eta Kornuaillesko hizkuntzetatik aldentzen hasi zen. Bestelako izaera bat hartu zuen. Nahiz eta gaur egun Britainia Handiko hizkuntza zeltak eta Britaniako bretoiera lotu hizkuntza-familia berekoak direlako, desberdintasuna oso nabarmena da, eta galesen eta bretoien arteko komunikazioa ia ezinezkoa da.

Bretoieraren ezaugarri nagusia honakoa da: bi mila urtetan zehar hizkuntza ez-zeltengandik eragin handiena jaso duen hizkuntza zelta da. Lau dialekto nagusi ditu bretoierak: Leon lurraldeetako dialektoa, treger, ternev eta gwened. Dialektoen banaketa aintzineko eliz barrutien banaketarekin bat dator. Nahiz eta gaur egun hizkuntzek edo dialektoek mugatzen dituzten lurralde hauek ez diren administratiboki ofizialak, bertakoek oso argi dute euren nortasun linguistikoa zein den eta zein eremutakoak diren. Gwened dialektoa da beste dialektoetatik urrunena dagoena. Gainerako bretoiek zailtasun handiagoak dituzte Gwened-eko hiztun batekin hitz egiteko orduan.

IX. mendera arte bretoiera oso ekialdera hedatzen zen, Renneseraino. Mendeak igaro ahala, bretoieraren lurraldea mendebalderantz murriztuz joan da astiro-astiro. Hiru edo lau mendetan zehar egoera egonkorra izan bazuen ere, gaur egun Behe Britainian du indarrik handiena.

Hizkuntza egoera kontuan hartuz gero, gaur egungo Britainia hiru eremutan bana daiteke: Bretoiera mendebaldean, frantsesa ekialdeko muturrean, eta galieraren lurraldea, bien artean dagoena, ekialdean. Galiera (gallois) sortaldeko Britainia nekazariko dialekto galiar-erromatarra da. Zenbait hiztun eta hezkuntzako agintarik hizkuntzatzat dute galiera eta eskola bukaerako azterketan ikasgai modura aukera daiteke.

## 2.6. HIZKUNTZAREN ARLOZ ARLOKO EGOERA GAUR EGUN

### 2.6.1. TRANSMISIOA ETA INGURUNE HURBILEKO ERABILERA

Britainiako biztanle gehienek ezagutzen dute elkarrekin bretoieraz hitz egiten duen bikoterik. Hala ere inkestaturen %21ek bakarrik onartu du bere gurasoak bretoieraz eta frantsesez mintzatzen zela. Helduen adin-tartea kontuan izanez gero, bretoieradunen %52k bakarrik onartu du gurasoekin bretoieraz mintzatzen dela. Bretoieradunen heren batek soilik hitz egiten du bretoieraz bere neba-arrebekin.

Gaur egungo gurasoek transmisioa eteten jarraitu dute, eta gero eta bakanagoak dira etxean bretoiera hutsez aritzen diren haurrak. Haurren %1 bakarrik mintzatzen da bretoiera hutsez etxean. Haurren %6ak bretoiera eta frantsesa, bi hizkuntzak erabiltzen ditu etxean. Datuak gero eta ezkorragoak dira, transmisioa eteten ari da, eta belaunaldi gazteen etxeetan bretoieraren erabilera ezohikoa da (TMO 1997).

Laburbilduz, 1950. eta 1979. urteen artean gurasoek seme-alabei bretoieraz hitz egiteari utzi diote. Nekazal giroko familia batzuek soilik dute bretoiera euren eguneroko hizkuntza gisa.

Oso gazte gutxi (25 urtez azpikoak) erabiltzen du bretoiera beste gazteekin komunikatzeko, nahiz eta aiton-amonekin edo gurasoekin bretoieraz mintzatu. Hala ere, hiri giroko familia gutxi batzuk bretoieraz mintzatzen hasi dira, bretoierari arnagune txiki bat emanaz. Fenomeno hau Diwan mugimenduaren ondorioz sortu zen (ikus 1.1.10).

TMOk egindako neurketak erakutsi du bretoien %22a mezetara joan ohi dela. Eliza beraz, bretoieraren indarberritzean garrantzia izan dezakeen eragilea da, baina jarraian ikusiko dugunez, ez da oso eraginkorra izan. Hasteko, bretoierak indar



handien duen lurraldeetan komunista dezente dago, eta Elizaren aurkako jarrera nahiko indartsua izan da.

Beste alde batetik, Elizak garrantzia handia du Britainiako hezkuntza sisteman. Ikasle bretoi gehienak ikastetxe katolikoetara joan ohi dira, hau da, Frantziar Estatuak diruz laguntzen duen eskoletara. Beraz, ikastetxe hauek frantsesarekiko atxekimendu handiagoa dute. Honek izugarritzko eragina du gazteen hizkuntza aukeraketan.

Lan munduko harremanetan berriz, lehenago esan bezala, bretoieradun gehienak nekazariak dira, eta langile liberal gutxi hitz egiten du bretoieraz. Bretoieraz mintzatzen den jende kopuru murriztagoak du goi mailako heziketa. Honek guztiak prestigioa kentzen dio hizkuntzari, eta bere beherakada gero eta handiagoa da.

### 2.6.2. IRAKASKUNTZA

Lehen hezkuntzan, 8 000 ikaslek ikasten dute bretoiera astean behin, ordu betez. Horien artetik 1 000 ikaslek ikasten du Diwanen, 250ek Dihun-en eta beste 250ek Estatuko eskola elebidunetan.

Irakaskuntza ertaina (kolejioa): 2 800 ikaslek astean gutxienez ordu betez du bretoiera, horietatik Diwan-eko 120k eta 50ek eskola elebidunetan.

Batxilergoa Lizeoan: 1 200 ikaslek du gutxienez ikasgai bat bretoieraz ([www.uoc.es/euromosaic/document/breto](http://www.uoc.es/euromosaic/document/breto)).

Aurreko datuetan aipatutako ikasleak hiru taldetan banatzen ahal dira: Ikastetxe bretoietara (Diwan) joaten diren ikasleak (ikus 1.1.10), Estatuaren menpe dauden eskola elebidunetako ikasleak eta ikastetxe katolikoetako (Dihun) ikasleak. Honek esan nahi du eskolara joateko adinean dauden ikasleen %2ak soilik jasotzen duela bretoierazko ikasgairen bat.

Gaur egun bretoierak irakaskuntzan duen presentziak ezer gutxi egin dezake hizkuntza indarberritzeko. Ikasle gehiagok jaso beharko luke formakuntza elebiduna hizkuntza suspertu ahal izateko. Hala ere, bretoieraren irakaskuntza gertaera berria da, 1977koa, eta 1992. urteaz geroztik sortu dira kualifikatutako lehenengo irakasle bretoiak. Hori dela eta inkestatutako gehienek onartu dute nahiago izan dutela beraien seme-alaba frantsesezko klaseetan matrikulatu, errealitateari kasu eginez.

Umeak bretoierazko klaseetan matrikulatzen dituzten gurasoek bretoierari atxekimendu handia diote, baina badakite bretoieraren benetako egoera nolakoa den. Hala ere, bretoiera indarberritzeko tresna garrantzitsua da irakaskuntza. Arlo honetan ahaleginak sendoak izan dira.

### 2.6.3. ARLO JURIDIKOA

Bretoierak ez du estatusik, ezta lekurik ere frantziar legeria sisteman. Frantsesa da onartua dagoen hizkuntza bakarra. Neurri honetan frantziar politikaren filosofia aplikatzen dela ikusten da, hau da, berdintasunaren ideia. Era berean denek hizkuntza bera erabili behar dute. Itzultzaileak erabili daitezke demandatuak frantses ez dakiela erakusten bada. Agiriak ezin dira bretoiera hutsezkoak izan, itzuliak izan behar dute. Auzitegiak agirien bertsio frantsesa onartuko du soilik.

#### 2.6.4. ZERBITZU PUBLIKOAK

Estatuko administrazioak ez du bretoiera erabiltzen, ezta onartzen ere, ez baitator bat legediarekin. Britainiako administrazioak berak ere ez du bretoiera erabiltzen, ezta Britainian dauden Estatuko organu nagusiek ere. Ez dago administrazioak erabilera bermatzen duen hizkuntza politika zehatzik. Tokian tokiko administrazioak berak ere Estatuko administrazioaren bide bera jarraitzen du.

Aurreko datuak ez dira oso ulergarriak, askok erabiltzen baitute udaletxe edo herri kontsejutan. Inkestek diotenez, bretoieradun gehienak bretoieraz mintzatzen dira herri aholkulariarekin ([www.uoc.es/euromosaic/document/breto](http://www.uoc.es/euromosaic/document/breto)). Oso herri gutxitan egiten da lan bretoiera hutsean, horretarako, langile guztiek jakin behar dute bretoieraz. Hala ere, oharrak, abisuak eta gainerakoak frantsesez izan ohi dira, eta oso gutxitan elebidunak. Jende gutxik daki bretoieraz idazten eta irakurtzen, beraz, bretoierazko dokumentu ofizialak nekez ulertzen dituzte.

Hala ere bretoieradunek frantsesez hitz egiteko ohitura handia dute abokatuekin, liburutegikoekin, langabezia bulegoekin, poliziarekin eta abar.

Finistere-ko Kontseiluak politika elebidun bat jarri du abian eta inguruko administrazioak gauza bera egitera bultzatu nahi ditu. Hasteko, herrien izenak bretoieraren ortografiara moldatu ditu. Legearen ikuspegitik, herri edo bailaretako izenak ezin dira aldatu parlamentuaren dekreturik gabe, beraz, askotan, toki ofizialetako izenen aldaketak ezin dira gauzatu.

Côtes D'Armor-eko hizkuntza politikak bretoieraren aldeko ahaleginak egiten ditu. Ahalegin gehienak sinbolikoak dira, leku-izenak bretoieraz jartzea edo bretoierazko ekintzei dirulaguntzak lortzea bezalako sustapenak dira. Hala ere, ekimen garrantzitsu bat jarri nahi izan dute martxan, irakaskuntza bretoieraz sustatzearena. Baina, zailtasun handiak dituzte, Estatuaren zentralismoa handia baita eta ez du kompetentzia hori herri mailako administrazioaren esku utzi nahi izan.

Herri mailako elkarte batzuek ere hainbat ekimen bultzatu dituzte: bretoierazko klaseak sortu bretoieraz ez dakitenentzat eta literaturako klaseak bretoieraz dakitenentzat. Agintaritzako sail batzuek ere antzerkigintza, liburugintza eta pedagogiako idatzietan bretoieraren presentzia handitzeko ahaleginak egin dituzte.

Bretoieradun gutxik daki benetan bretoieraz ongi idazten eta irakurtzen (ikus 2.2.2.), eta bretoierazko produktuen eskaria ez da oso handia. Horrek guztiak ez du esan nahi agintaritzakoek bretoierazko produkzioa handituko balute bretoiek kontsumituko ez luketeenik. Aitzitik, inkestek kontrakoa diote.

Beraz, bretoieraren erabilera oso mugatua da administrazioan, herri mailan erabiltzen da eta gehienetan ahozko harremanetarako erabiltzen da, era informalean.

#### 2.6.5. KOMUNIKABIDEAK

Bretoieraren presentzia komunikabideetan txikia da. Eskualdeko telebista publikoak bakarrik ematen ditu batzuetan bretoierazko emanaldiak. Programazio osoan honakoa da bretoierari eskaintzen zaion tartea: eguneroko albistegietan 5 minutu eta gai orokorrak lantzen dituen programa bat 45 minutukoa. Bretoierari eskaintzen zaion programazioa ikusle gutxien izaten den garaian emititzen da.

Irratian bretoiera gehiagotan entzun daiteke. Eskualdeko bi irrati publikok asteen ordu jakin batzuk aukeratu dituzte bretoieraz diren irratsaioetarako (2-14 ordu asteen). Hala ere badira herri edo herrialde mailako irrati elkarteak, besteak beste *Radio Kreiz Breizh* (20 ordu bretoieraz) eta *Radio Bro Gwened* (17 ordu bretoieraz). Inkestetako datuen arabera, Europako gainerako hizkuntza gutxituekin alderatuz, programa hauek arrakasta handia dute Britainian ([www.uoc.es/euromosaic/document/breto](http://www.uoc.es/euromosaic/document/breto)).

Ikerketek azaldu dute ulermen arazoak daudela zenbaitetan dialektok direla medio, batez ere Gwened-eko eskualdeko entzuleekin, eta Finistere hegoaldeko Bigouden eskualdeko jendearekin ([www.uoc.es/euromosaic/document/breto](http://www.uoc.es/euromosaic/document/breto)). Hala ere ikerketek erakutsi dute emanaldi oso eta zabalagoak izanez gero ikusle-entzulego handia edukiko luketela bretoierazko komunikabideek.

Bretoierazko egunkariak orokorrean literatura eta gai linguistikoez aritzen dira. Egunkaririk garrantzitsuena *Breñam* da, milaka ale kaleratzen da eta 2500-3000 irakurle ditu. Umeentzat aldizkari berri bat sortu da, *Moutig* izenekoa, euskarazko beste aldizkari batekin elkarlanean ateratakoa. Era berean Eskualdeko Kontseiluaren eta Europako Batasunaren dirulaguntzak lortzen ditu. Modu azkarrean hedatzen ari da dirulaguntzei esker, eta etorkizunean beste planak sustatzeko eredu bilaka daiteke.

#### 2.6.6. KULTUR PRODUKZIOA

Urtean 25-30 liburu argitaratzen da bretoieraz. Gai eta estilo mota desberdineko liburuak dira hauek. Irakurle kopurua nahiko apala da. Hala ere irakurle multzo hau leiala izan ohi da, esan nahi da, bretoierazko liburuak erosteko ohitura duen irakurle multzoa da.

Bestalde, Britainian musika eta artearekin lotutako tradiziozko ekintza asko antolatzen da. Bretoiera tradizioaren ardatza da eta kanta bretoiaren jarraitzaile asko dago. Urtero 20 KD berri ateratzen da bretoieraz. Bretoierari hertsiki loturik dagoen *Fest Noz/ Fest Deiz* jaialdiak arrakasta handia izan ohi du.

Antzerkigintzan, berriz, talde batzuk badaude, erdi-profesionak direnak, baina euren lan eremua nahiko mugatua da. Ez dago bretoierazko industria zinematografikorik, baina luzemetraia batzuk burutu dira.

Eskualdeko Kontseiluak kultur Institutu bretoia finantzatzen du: *Skol Uhel ar Vro*. Finisterek eta Côtes d'Armor-ek laguntzak ematen dituzte argitalpenetarako, disketarako eta ikuskizunentzako. Finisterek ere France 3-ri dirulaguntzak ematen dizkio bretoierazko emanaldiak ematen jarrai dezan. *Dastum* artxibo folklorikoak ere babes ofizial handia du.

#### 2.6.7. LAN-MUNDUA

Lanean ari den bretoieradunen %79a nekazaria edo abeltzaina da, eta %6ak soilik egiten du lan hirugarren sektorean. Hirugarren sektorean lan egiten duen multzo honetako bi herenak enpresa txikietako langileak dira. Orokorrean enpresa txiki hauen jabeek bretoiera ulertzen edo hitz egiten dute (Euromosaic-en inkesta).

Lana lortzeko orduan bretoieraz mintzatzen jakiteak ez du garrantzia handirik. Frantsesez idatzi edo irakurtzen jakiteak oinarrizkotzat jotzen badute ere, bretoiera

ulertzea lagungarri izan daitekeela uste dute nagusiek, baina ez beharrezkoa. Lan jakin batzuetan soilik eskatzen da bretoiera ezagutzea: Eskualdeko Parkeko administrazioan eta hizkuntzaren irakaskuntzan. Beraz, bretoierari gehien lotutako lanbideak irakaskuntza, turismo kulturala, herri agintaritzako zerbitzu elebidunak eta kazetaritza/ irratia/TB ko lanbideak dira.

Jende gutxi daki benetan bretoieraz idazten eta irakurtzen. Beharbada horregatik bertako produktu gutxiago merkaturatu da bretoieraz. Ikerketek erakusten dute biztanleek bretoieraren sustapena onartzen dutela, baina ez dute nahi oraindik bere erabilera behartzea, batez ere lan-munduan.

## 2.7. BRETOIERAREN HIZKUNTZA POLITIKA ETA ESTATUS JURIDIKOA

Ez dago hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza politika zehatzik, bai ordea frantsesaren alde egiten duena. Zenbaitek "hizkuntzaren aurka joateko joera duen tolerantzia" gisa definitzen du bertako hizkuntza politika. Bretoierak Frantziako gainontzeko hizkuntza ez-ofizialen estatus bera dauka. Estatus hori frantsesaren aldeko legeek arautzen dute.

Hasteko, "1532 Villers-Cotterets" ediktuan zehaztu zen frantsesa zela epaiketetan erabili zitekeen hizkuntza bakarra. Beranduago etorri zen "2 thermidor An II" ediktua (20-7-1794)". Honek frantsesa agiri publiko guztietan izatea derrigortzen zuen. Jarraian izendatutako ediktuak, irakaskuntzari buruzkoak, kalte handia egin zien hizkuntza gutxituei (ikus 2.9). "2 vendemiaire An II (1887ko urtarrilak)" ediktuak frantsesa bakarrik onartzen zuen irakaskuntza sisteman.

Beranduago, irakaskuntza arloan izan da hizkuntzaren inguruko legerik ere. Aipatzeko modukoa da 1951. urteko "Deixonne legea". Honek, hezkuntza sistemaren barnean bretoieraren irakaskuntza arautu du, hizkuntzaren hautazko irakaskuntza onartuz, baina klase orduetatik kanpo.

Pasa den hamarkadan bertan, frantsesaren aldeko politika zen nagusi. Kostitutzioa berritu zen urtean, 1992.ean, argi eta garbi azaldu zen Errepublikako hizkuntza (bakarra) frantsesa dela.

Frantziak ez du hizkuntza gutxituen eskubideei buruzko edota ama-hizkuntzaren erabilerari buruzko hitzarmenik sinatu nahi, esaterako Europako tokian tokiko hizkuntza gutxituen Karta. Era berean, Frantziak Eskubide zibil eta politikoen Paktuaren 27. artikulua indargabetu du, eta baita Umeen Eskubideen Konbentzioko 30. artikulua. Azkeneko hau ama-hizkuntza erabiltzeko eskubideaz mintzo da.

Behe-Bretainiako komuna guztietako Herri Kontseiluek, batek izan ezik, denek eskatu diote gobernu zentralari hizkuntza gutxituen aldeko Europako Karta sina dezan eta hizkuntzari buruzko legeak zehaztu ditzan. Ikerketek erakutsi dutenez, bretoieradunek administrazioan eta jendaurreko zerbitzuetan bretoiera erabiltzea nahi dute, eta hurrei eskolan bretoiera erakustea ere nahi dute (Euromosaic, INSEE, 1994).

Gainera, inkestatutako pertsona gehienek estatu zentralak bretoierarekin duen jarrera eta tratu txarra salatzen dute. Bretoierari dagokionez Estatuaren erabakien kontra daude (Euromosaic, INSEE, 1994).

## 2.8. BRETOIERAREN BEHERAKADA. BILAKAERA ETA EGOERAREN ERAGILEAK

Azpitarragarria da bretoieraren ibilbidea nola aldatu den hiru belaunaldiren buruan. Honakoa da bretoieradunen errealitatea:

- Aiton-amonak bretoieradun elebakarrak ziren.
- Gurasoak elebidunak ziren
- Seme-alabak edo bilobak frantses elebakarrak dira orokorrean.

Hau da egoera linguistikoak izan duen eboluzioa azken 50 urte hauetan zehar. Lehenengo Mundu Gerra ondoren gurasoek hurrei frantses hitz egiten hasi ziren, hau izan zen beraien aukeraketa.

Frantses hitz egiten zieten seme-alabei, baina, prozesu edo faktore batzuk izan ziren tartean, ez zen bat bateko aukeraketa izan. Lehen Hezkuntza derrigortu eta hiru belaunaldi beranduago, azkeneko gerra ondoren, gurasoek seme-alabak frantseseko irakaskuntzan matrikulatu zituzten. Hala ere, euren arteko harremanetan, hau da, etxeko giroan bretoieraz hitz egiten jarraitu zuten. Gurasoek frantsesa ez ikasteak eta egoera horrek ekarri zien bazterketak bultzatu zituen erabaki hau hartzera.

Honek guztiak bretoierari kalte besterik ez zion egin. Horretaz gain, Britainiako ekonomiaren modernizazio prozesua gehitu behar zaio garai honi, eta honek frantsesaren zabaltzea besterik ez zuen eragin.

XX. mendearen hasieran bretoiera gehiengoaren hizkuntza zen (ikus 6. irudia). Lehen Mundu Gerra ondoren bere erabilera beherantz joan zen eta gaur egun frantsesa da gehiengoaren hizkuntza. 40 urtetan zehar, 1950etik 1990era bretoi hiztunen portzentaia %75a izatetik %20a izatera pasa da.

### 2.8.1. ERAGILEAK

Zeintzuk dira bretoieraren beherakadaren eragilerik nagusienak? Estatuak al da erruduna? Neurri handi batean estatuak zer esan handia du bretoieraren beherakadan, baina ez da eragile bakarra izan. Estatuak nazio batasuna defendatu nahi izan du mementu oro, botere zentralaren bidez eta baita herri mailako ordezkartzen bidez.

Iraultzaz geroztik era guztietako neurriak hartu ditu batasun linguistikoa gauzatu ahal izateko, Frantziar estatuak ez du hizkuntza aniztasuna onartu. Frantsesaren erabilera sustatzeko baliabiderik garrantzitsuena eta eraginkorrena eskola izan da. Hori dela eta, bretoieraren bilakaera ulertzeko ezinbestekoa da irakaskuntzan izandako gertaerak kontuan izan eta aztertzea.

Hasteko, Emile Combes politikariak 1902. urtean abian jarritako neurriak eragin handia izan zuen irakaskuntzan. Urte honetan hainbat neurri hartu zituen. Neurri hauek guztiak Elizaren aurkakoak izan arren, bretoieran eragin handia izan zuten. Alde batetik, uztailaren 5ean baimenik ez zuten kongregazioetako ikastetxeak itxi zituzten. Frantzia osoan 2 500 ikastetxek eta Finisteren 64k zituzten ezaugarri hauek.


Erlijio gizon-emakumeek ez zutenez euren jarduera utzi nahi izan, Cormes-en gobernuak kanporatu egin zituen. 1902. urteko irailaren 29ko zirkularrak, berriz, bretoieraz zegoen predikua debekatu zuen. Orduko politika elizaren kontrako politika izan bazen ere, zuzen-zuzenako eragina izan zuen bretoieran, elizak bretoiera erabiltzen baitzuen fededunekin zuen harremanetan. “Bretoiera gehiegitan erabiltzea”, hori izan zen elizgizonak errudun izateko arrazoietakoa bat. Hori dela eta, ikastetxeetan bretoieraren irakaskuntza baztertu zen eta frantsesak ordezkatu zuen lehenago izandako lekua. Gertaera honek izugarritzko aldaketa ekarri zuen eta gatazka handia sortu zen.

Hala ere, 50 urte beranduago, familia askok euren seme-alabei bretoieraz ez hitz egitea erabaki zuen. Nahiz eta inguruko baldintzek bultzatua izan, erabaki hau ez zuen inongo mandatuk arautu. Arrazoi hauek eragin zuten erabaki hori:

- Jakiturari atek zabaltzea: seme-alabei ikasketak egiteko erraztasun handiagoak ematea.
- Prebentzioa: eskolan edo soldaduskan gerta daitezkeen traumak saihestea.
- Mimetismo edo snobismoa: Hiriko ohitura linguistikoetara igaro nahia, maila handiagokoa izan nahia...
- Frantsesa hartzeak gizarte tradizional bat uztea esan nahi zuen, liberazio gisa hartzen zen hori.

Aldaketa ekonomikoak ekarri zuen, besteak beste, pentsaera aldaketa hau. Ekonomiaren aurrerapenek frantsesaren aldeko mugimendua areagotu besterik ez zuen egin.

Nekazaritzaren beherakadak eragina izan du bretoieraren bilakaeran. Nekazal eremuak izan dira bretoieraren gordailu. Nekazaritzaren beherakadak kanporako migrazioa ekarri zuen, eta horren ondorioz, bretoierak beherakada handia jasan zuen. Herri txikietakoa jendeak aglomerazio handietara alde egin zuen, frantses eremura, eta bretoiera alde batera utzi zuen. Beraz, eragile politikoez gain, faktore ekonomikoek ere berebiziko astindua eman zioten bretoierari.



6. irudia: Bretoieraren erabileraren eboluzioa (Iturria: [www.langue-bretonne.com](http://www.langue-bretonne.com))

## 2.9. FRANTSESAREN ZABALKUNTZA. IRAKASKUNTZA BIDEZ

Bretainiako egoera linguistikoa ulertzeko ezinbestekoa da irakaskuntzan frantsesak eduki duen presentzia aztertzea, horrek belaunaldi gazteen hizkuntza erabilera aldatu baitzuen. Horren guztiaren ondorioz eta aurreko atalean aipaturiko eragileen ondorioz bretoierak oso esparru zabala galdu zuen. Hiru garai bereizi ahal dira irakaskuntzak frantsesaren erabilera zabaltzeko martxan jarri zuen prozesuan:

### 2.9.1. 1. GARAIA.

XIX. mendean zehaztu zen jada irakaskuntza frantsesez izan behar zuela. Hala ere, praktikan ez zen horrela izaten, bretoiera nagusi zen irakaskuntzan, Britainian bederen. Haurrak eskolara sartu aurretik bretoierak ziren garai honetan. Gizarteak frantsesa ezagutzeko beharra ere eskatzen zuen. Bretoierak eskoletan iraun zuen Ferry-ren erabakia martxan jarri zen arte. Irakaskuntza ofizialean izan zuen eragina erabaki honek. Hala ere, bretoiera erabiltzen jarraitu zuten irakaskuntzan, eta katekesiko hizkuntza zen.

Hala ere, hezkuntzako agintariek ez zuten egoera hau onartzen eta Frantziarako batasun linguistikoa eskatzen zuten. Baina bretoieraren aldeko erresistentzia nahiko indartsua zenez, jarrera eroso hartu zuten, egoera aldatzeko zailtasunak ikusten baitzituzten.

Garai honetan (1880. urtera artekoa), beraz, teorikoki frantsesak lehentasuna bazuen ere, bretoierak malgutasun osoa zuen praktikan, eta oso erabilia zen irakaskuntzan.

### 2.9.2. 2. GARAIA.

Garai honek 1880. urtetik 1950. urtera arte irautea du. Aurreko garaiaren haustura bat da. Legediaren helburu nagusia adin zehatz bat arteko haurren irakaskuntza derrigortzea da, eta arautu egiten du. Behe Britainian batez ere bretoieradun elebakarrak diren haurrak eta eskolara joan aurretik frantsesez ez zekiten haurrak derrigortu zituzten eskolara joatea. Carré generala izan zen derrigorrezko lehen hezkuntza arautu zuenatariko bat.

Ondoren, Anatole de Monzie-k zirkular bat plazaratu zuen. Tokian tokiko hizkuntzei buruzkoa zen. Tokian tokiko hizkuntzak baztertu zituen frantsesaren irakaskuntzarako oztopo zirelako, bere ustez.

Hezkuntza derrigorrezkoa den garai honetan irakaskuntzan ez zuten bretoiera kontuan izan eta umeen hizkuntza erabileraren aurkako errepresio bideak jarri zituzten abian. Beraz, 80 urtetan zehar bretoieraren erabilera galerazi zuten eskoletan. Bretoieraren debekuak Behe-Bretainiako ia haur guztiengan izan zuen eragina.

### 2.9.3. 3. GARAIA.

Azkeneko Mundu Gerra pasa ondoren, bretoieraren ezagutza jaitsi egin zen, eta ume gutxiagok zekien bretoieraz mintzatzen. 1964. urtean egindako inkesta batean, honakoa atera zen: guraso askok ez zioten bretoieraz hitz egiten seme-alabei, alferrikakoa iruditzen zitzaielako. Izan ere, eskolan ez zen bretoiera irakasten eta horrek frantsesezko ikasketak oztopa zitzakeela uste zuten. Hau guztia ez zen bat-bateko fenomenoa izan, hau da, ez zen gurasoen bat-bateko erabakia izan. Transmisio etendura ideologia baztertzailaren lorpena izan zen, gurasoei hori sinestaraztea lortu zuten.

Garai hartako gurasoei sinestarazi zieten bestela ere bretoieraz dezente hitz egiten zela, eta umeek ez zutela zailtasunik izango bretoieraz hitz egiteko. Aurreko bekaunaldikoek bederen nahiz eta bretoieraz hitz egiten inork ez irakatsi, beste haurrekin edo bizilagunekin bretoieraz hitz egiten ikasi zuten. Hala ere garai hartan inork ez zen ohartu egindako aukeraketak ondorio larriak ekarriko zizkiola beranduago bretoierari. Oso zaila da orduan bretoierak galdu zuen eremua berriz berreskuratzea.

Beranduago, 1950-1970 urteetan badira bretoieraz mintzatzen dakiten haurrak. Baina guraso gehienek frantsesa erabiltzen dute seme-alabekin komunikatzeko garaian. Garai honetako berezitasuna da eskola batzuetan bretoiera irakasten zitzaizela haurrei. Beraz, haurrak elebidunak dira, eta elebakarrak direnak frantsesez dakite soilik.

Bigarren Mundu Gerra ondoren suspertu eta indartu zen beraz Behe-Bretainian irakaskuntza eta formazioa. Hezkuntza asko garatu zen, baina frantsesa zen irakaskuntzako hizkuntza. Beraz, hirugarren garai honetan ere, eskolak bretoiera baztertzaren jarraitu zuen. 1951. urtean Frantziako historiako lehenengo hizkuntza legea bozkatu zen, Deixonne legea (ikus 2.7), tokian tokiko lau hizkuntzen irakaskuntza onartuz, lau hizkuntza hauen artean bretoiera zegoelarik. Baina legea betearazteko prozesua oso astiro gauzatu zen, bai legearen mugak direla medio, bai beste dekretu eta zirkularren beharra dela medio.

Duela ez hainbeste urte, 80. hamarkadan, egoera aldatuz doa, eskolara sartzeko garaian bretoieraz dakitenen portzentaia oso txikia da. Diwan eskolan izena ematen dutenen artean gehienek ez dakite bretoieraz mintzatzen, guraso gehienek ere ez baitzekiten bretoieraz.

Diwan eskola Eskola Nazionalak zituen hutsuneak betetzeko sortu zuten bere sustatzaileek (ikus 2.10). Horrez gain, 1982ko Savary zirkularrari esker, eskola publiko batzuetan irakaskuntza elebiduna izateko aukera zabaldu zen, eta pribatu batzuetan, nahiz eta pixkanaka izan: Saint Rivoal, Caval, Lannion, rennes, Landerneau... klase erdiak bretoieraz eta beste erdiak frantsesez ematen hasi ziren.

Guztira, bretoierazko irakaskuntzak nahiko indar txikia du, ahula da bretoieraz matrikulatutakoen portzentaia. 1980. urtean lehen hezkuntzan 10 000 haur zeuden bretoierazko eskoletan izen emanda, eta 6 000 bigarren hezkuntzan (INSEE 1999).

### 2.9.4. ALDAKETA GARAIA

Azkeneko garaian bi aldaketa azpimarratu behar dira. Alde batetik, azkeneko Mundu Gerra eta gero, 1960. urte aldera, bretoieraren irakaskuntza eskatzen zen ume



askoren ama-hizkuntza zelako. Bestetik, gaur egun hurrek ezagutzen ez duten hizkuntza ikastea eskatzen da, euren aiton-amonen hizkuntza ikastea.

Beste aldaketa bat ere gertatu da azken urteotan. Lehen bretoiera mantentzea zen helburu, horretarako ikasgai konkretu bat zuten soilik bretoierari zuzendua. Gaur egun berriz Diwan eskoletan eta eskola elebidunetan bretoiera ez da ikasgai soil bat, baizik eta beste zenbait ikasgai (historia-geografia, natur zientziak, matematikak, etab.) ikasteko tresna da.

Bretoiera irakaskuntzara iritsi ahal izateko ahalegin handiak egin behar izan dira. Ahalegin horiek gabe egoera ziurrenik okerragora joko zuen. Bretoieraren egoera ona ez den arren, zenbaitek ez du amore eman, eta oraindik bizirik dirau.

## 2.10. BRETOIERAREN ALDEKO AHALEGINA: DIWAN

Diwan eskolaren sorrera bretoieraren aldeko ahaleginik azpimarragarriena dela esan daiteke, bretoieraren galera handia irakaskuntzan frantsesa erabiltzeak ekarri baitzuen. Bretoieraz soilik hitz egiten zuten hurrek ikasketak frantsesetik egin zituzten. Guraso askok hurren ikasketen oztopo ez izateko frantsesetik mintzatzen zieten hurrei, eta galera hau izugarrikoa izan zen mende bakar batean. Beraz, bretoiera berreskuratzeko (neurri batean) ere irakaskuntzaren ildoari eutsi dio zenbaitek, Diwan eskolak sortuz.

### 2.10.1. DIWAN ESKOLEN SORRERA

Botere publikoaren arreta ezaren aurrean, eta bretoiera hezkuntza sistematik kanpo zegoen garaian, ikasle batzuen gurasoek erabakia hartu eta lehen Diwan eskola sortu zuten 1977. urtean. Hurrek bretoieraz ikasten zuten eskola zen Diwan eskola Europako beste eredu batzuei jarraituz: Euskal Herriko ikastolak, Okzitaniako calandretak, Kataluniako La Bressola, etab..

Beranduago, Diwan eskola gehiago sortu zen: 1980. urtean lehen hezkuntzako lehenengo eskola, 1988an lehenengo kolejioa, 1994an lehenengo lizeoa, eta abar.

Diwan eskola publikoa ez denez, herri elkarte eta norbanakoen dirulaguntzei esker jarraitzen du aurrera.

### 2.10.2. FRANTZIAN BRETOIERA HUTSEZKO IRAKASKUNTZA KONSTITUZIOAREN AURKAKOA DA?

Jack Lang Hezkuntza Nazionaleko ministroak eta Diwan eskoletako lehendakariak protokolo bat sinatu zuten 2001. urteko maiatzean. Hala ere, irakasleen zenbait sindikatuk salatu egin dute protokolo hau eta Estatuko Kontseiluari beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu diote. Konstituzioaren aurka doala azaltzeko, Frantziako Konstituzioko 2. artikulura jotzen dute. Bertan, honakoa esaten da: "errepublikako hizkuntza frantsesa da". Baina lege honen egileek legea tokian tokiko hizkuntzen aurka ez zela erabiliko zin egin zuten, eta hori gogorarazi behar da. Diwan eskola defendatzen dutenek diote "konstituzioaren aurkako metodo hau" frantsesa ikasteko ere erabiltzen dela atzerrian, "Alliance française"ko zentroetan. Gainera, Estatuko Hezkuntza sailak dirulaguntzak ematen dizkiete zentru hauei.

Gaur egun egoera egonkortua dago, eta estatuko barne funtzionamenduko batzuek konstituzioan aldaketak egin nahi dituzte eta beste batzuk ez. Beraz, ez da oraingoz erabaki sendorik hartu.

### 2.10.3. DIWAN ESKOLEN ESTATUTUAK

Diwan, eskolen elkarketaren federazioa da. Gehienek kontratupeko zentro pribatuen izaera dute. Beraz, Estatuak edo herri elkarteek finantza dezakete. Falloux legeak dirulaguntza publiko hauek %10era mugatzen ditu. Eskola berriek ez dute dirulaguntzarik jasotzen, 5 urte eskatzen baititu legeak eskolek dirulaguntzak jaso ahal izateko. Pariseko Diwan eskolaren kasuan adibidez, 2004. urtean sortu zen eta ez du dirulaguntzarik jasotzen. Diwan eskolaren defendatzaileek salatu dute frantsesa ez den beste hizkuntzetako zentroek laguntzak jasotzen dituztela Pariseko udalaren eskutik .

Diwan eskolek aurkako jarrera eta kritika asko jaso dituzte. Batez ere Frantziako estatuko batasuna defendatzen dutenek eta zentralistek sutsuki egin dute Diwan eskolaren aurka. Hala ere, Diwan eskolaren eguneroko jarduna ezin da zalantzan jarri:


- Hezkuntza nazionalak bertan irakasten dena aztertu eta onartzen du.
- Diwan eskoletan erabiltzen den materiala bera erabiltzen dute Hezkuntza Nazioleko eskola elebidunetan eta eskola libreetan.
- Diwanek erabiltzen dituen liburuak Hezkuntza Nazionalarekin elkarlanean sortutakoak dira.

Diwan eskola bretoieraren egoera txarrari arnagune bat sortzeko ahaleginaren emaitza da. Frantziako hizkuntza politikak ez dio askorik laguntzen bretoierari baina hala ere guraso batzuen eta elkarte batzuen ekimenez hizkuntza irakaskuntzaren bidez suspertzeko nahia hazi da. Ikusi dugunez, zenbaitek hala ere bretoiera mehatxu gisa ikusten du. Mementoz bretoien helburua azken urte hauetan bretoierak izan duen galera gediaraiztea izango da, eta haur eta gazteak izaten diren eremuetan eragitea bide ona izan daiteke.

### 3. OKZITANIERA

#### 3.1. DESKRIPZIO DEMOGRAFIKO-LINGUISTIKOA

Okzitaniarrek eremu zabala du, Frantziako lurraldeen herenean zabaldua dagoen hizkuntza da eta. Okzitaniara lurralde administratibo hauetan erabiltzen da: Basses- Pyrénées (Euskal Herrian izan ezik), Hautes Pyrénées, Gers, Landak, Gironde, Lot eta Garonne (La Grande eta La Petite Gavecherie-n izan ezik), Tarn-et-Garonne, Haute-Garonne, Axiège, Pyrénées-Orientaleseko zati batean, Aude, Hérault, Tam, Aveyron, Lot, Dordogne (mendebaldean izan ezik), Corrèze, Haute-Vienne (iparraldean izan ezik), Charenteko zati batean, Creuse, Puy-de-Dome (iparmendebaldean izan ezik), Allier-eko zenbait eremutan, Cantal, Haute-Lore, Lozère, Gard, Ardèche (iparraldean izan ezik), Isère-ko hegoekialdean, Drôme (iparraldean izan ezik), Hautes-Alpes, Basses-Alpes, Vaucluse, Bouches du-Rhône, Var eta Alpes- Maritimes.



7. irudia: Okzitaniako dialektoak. (Iturria: Orbis Latinus, 2001)

Okzitaniarrek hainbat dialekto ditu: gaskoiera (zenbaitek hizkuntzatzat jotzen duen arren, lan honetan okzitaniararen barneko aldagai gisa hartuko dut, informazio iturri gehienetan honela ikusi dudalako), languedoziera, probentzera, auvergnatera, limousinera eta alpetar probentzera edo alpetar dofineriera ere deitua.

Okzitaniaraz dialekto desberdinetan hitz egiten duten hiztun askok ez dute elkar ulertzen. Gaskoiera nekez ulertzen dute askok, taldean desberdinena delako, azentu berezia duelako, berezko hitz batzuk dituelako ("pr' amor" "perqué" erabili ordez), kontsonanteen lekualdaketa ugari dituelako, eta abar.

Frantziatik kanpo, okzitaniaraz Kataluniako Aran haranean hitz egiten da, Italiako alpetar haran batzuetan (Torino eta Cuneo), eta Monacon, hiriburuan izan ezik.

Okzitanieraz hitz egiten den lurraldeetan 13 milioi biztanle bizi dira (1990ko zentsua). Azken urteotan hazkunde handia gertatu da, baina hazkunde hau ez da uniformea izan: hazkunderik indartsuena Mediterraneo inguruko eremuetan izan da (Probentzan, Langedoc-en) eta zenbait hiritan (Tolosan). Bestalde, biztanle kopurua asko jaitsi da beste zenbait eremutan, esaterako, Limusin eta mendi aldeko departamentuetan.


Lurralde hauetan jaiotakoak %20ak kanpora alde egin zuen, batez ere 1963 eta 1975 urte artean ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita)). Kausarik garrantzitsuenak honakoak izan ziren: lana bilatzeko zailtasunak, industriaren gainbehera, eta nekazaritza sektorerira iritsitako mekanizazioa.

Gaur egun Okzitanian bizi direnen % 20a, berriz, kanpoan jaio da. Inmigrazio honen kausarik garrantzitsuenak, berriz, honakoak dira: industria berriak sortzea eta turismoaren garapena. Inmigrazioa 1975an hasi zen batez ere. Gaur egun ere irauten du. Etorkinek erabiltzen duten hizkuntza frantsesa bada ere, badira tartean beste hizkuntza batzuk (arabiera, berbera, etab.).

Batez ere okzitanieraz hitz egiten den lurraldeen ezaugarriak honakoak dira: nekazaritzaren nagusitasuna, hirugarren sektorearen indar handia, eta industrializazioaren gainbehera. Inguru hauetako biztanleen bizi-kalitatea baxua da estatuko batz besteko mailarekin konparatuz gero.

### 3.2. OKZITANIERAREN EZAGUTZA

Egia esan zaila da okzitanieraz hitz egiten duten hiztunen kopurua zehaztea, eta estatistika gutxi dago honen inguruan. Hala ere, informazio iturri desberdinetan begiratu eta gero (Agence France-Presse 1990, Média Pluriel 1994, INSEE 1994), badirudi bi milioi inguru hiztun dituela okzitanierak (gehienak 50 urtetik gorakoak), kontuan hartu behar da okzitanieraren eremuan 14 milioi biztanle bizi dela. Bi milioi horietatik 700 000 hiztun dira Probentzako dialektoaren hiztun, beraz, hiztun hauen banaketa ez da oso orekatua. 1920. urteko datu batzuetan azaltzen denez (Média Pluriel Méditerranée-Montpellier, 1994), orduan 10 milioi hiztun zituen okzitanierak. Galera izugarrikoa da, bretoieraren kasuan bezala. Mende batean hiztun asko galdu du okzitanierak.



8.irudia: Okzitanieraren ezagutza, 1994. (Iturria: INSEE, 1994)

*Média Pluriel Méditerranée-Montpellier* –ek egindako inkestaren emaitzak dira jarraian daudenak (statistique Languedoc-Roussillon, 1994). Okzitaniera %48k ulertzen

duen bitartean, biztanleen %28k daki okzitanieraz hitz egiten. Bestalde, %13k okzitanieraz zailtasunik gabe irakurtzen duela aitortzen du, baina %6k besterik ez daki okzitanieraz idazten.

Hala ere banaketa ez da berdina lurralde guztian, izan ere:

Okzitaniako ekialdean	Okzitaniako mendebaldean eta mendialdean
-%40k ulertzen du. -%20k hitz egiten du, batzuek oinarrikoa bakarrik jakin arren -%10k irakurtzen du okzitanieraz. -%4k daki okzitanieraz idazten	-%75ek ulertzen du. -%55-60k daki hitz egiten, batzuek hitz batzuk soilik -%33k irakurri ahal du okzitanieraz -%12-14k daki okzitanieraz idazten

(Iturria: Média Pluriel, 1994)

Estatistikak zenbaitetan ez datoz bat. Izan ere grafikoan ipini dut %14koa dela okzitanieraren ezagutza (INSEE 1994). *Média Pluriel Méditerranée-Montpellier* – ek egindako ikerketan berriz okzitanieraren ezagutza %28a da. Datuak ikertzaileen irizpideen arabera alda daitezke, izan ere, batzuek ongi hitz egiten dutenak hartzen baituzte kontuan eta beste batzuek, berriz, okzitanierazko oso oinarriko maila dutenak ere aintzat hartzen dituzte. Alde honetatik datuok gabezia handia dute, ez baitute zehazten hiztunek duten ezagutza maila. Hala ere aurreko taularekin argi azaldu da ezagutza banaketa ez dela berdina lurralde guztian zehar.

Bestalde, zoritxarrez ikerketa guztiek azpimarratzen dute okzitanieraren galera izugarria lurralde guztian zehar. Dena dela ezagutza portzentaia %14an finkatuko dut, informazio iturri gehienetan honela azaltzen baita (INSEE 1994, Agence France Presse 1990)

Okzitania guztian okzitanieraren ezagutza uniformeak ez den bezala, herri eta hirien artean ere desoreka nabarmena dago:

- Nekazal eremuetan eta herri txikietan okzitanieraz beste leku batzuetan baino gehiago hitz egiten da, %33.
- Herri ertainetan %25ek hitz egiten du normalean.
- Hiri handietan (Nîmes, Montpellier) %25-30ek ulertzen du okzitaniera baino oso jende gutxi hitz egiten du hizkuntza honetan (Média Pluriel 1994).

Hiztun asko herri txikietakoa dela ikusi dugu. Hori dela eta okzitanieraz hitz egiten duten %55 nekazariak dira. Bestalde, hiztunen %53a jubilatua dago.

Bestalde ezagutza maila altuagoa da gizonengan (%59) emakumezkoengan baino (%41).

Adin taldeak kontuan izanez gero, bretoieraren kasuan bezala, okzitanieraren ere adinekoen taldea da hiztun kopuru handiena duena. Izan ere, 18-24 urtekoen artean, %6k bakarrik daki okzitanieraz ongi hitz egiten. Zaharragoek, 65 urte edo gehiago dutenen artean, berriz, %59k daki okzitanieraz. Datu hauekin, beraz, argi ikusten da okzitanierak, bretoierak bezala, galera handia izan duela eta bere hiztunen populazioa zahartzen ari dela.

### 3.3. OKZITANIERAREN ERABILERA

Inkestaturen %9k soilik hitz egiten du okzitanieraz askotan edo normalean.

Hala ere, ezagutzarekin gertatzen zen moduan, erabilera maila desberdina da lurralde osoan. Ekialdean %5ek hitz egiten du normalean okzitanieraz, mendebalde eta mendialdean, aldiz, %25ek hitz egiten du okzitanieraz (Média Pluriel, 1994).

Lehen esan bezala, okzitanieraren ezagutza altuagoa da herri txikietan handietan baino. Herri txikietan %33ak hitz egiten du okzitanieraz, hiri handietan, berriz, oso jende gutxi hitz egiten du okzitanieraz.

Gazteen hizkuntza erabilera txikia da, ezagutza oso baxua baita (%6). Bestalde, okzitanieraren transmisioak galera handia izan du azken urte hauetan. Izan ere, okzitanieradunen %5ak besterik ez die beraien hizkuntza transmititzen seme-alabei (<http://fr.wikipedia.org/wiki/Occitan>). Kopuru hau oso txikia da, eta galera gero eta handiagoa da. Ume askok eskolan ikasi du okzitanieraz mintzatzen, horrek galera neurri batean geldiarazten du.

### 3.4. HIZTUNEN NAHIAK ETA IRITZIAK HIZKUNTZAREKIKO

Honako datu hauek *Média Pluriel Méditerranée-Montpellier*-ek egindako ikerketatik atera dira, eta Okzitaniarrek euren hizkuntzaz pentsatzen dutena azaltzen da.

- %32ak izendatu du okzitaniera lurraldeko lehen hizkuntza gisa.
- %48ak onartu du okzitanierarekin duen lotura estua.
- Hiru pertsonetatik bik onartzen du okzitanieraren erabilera beheruntz doala
- Lau pertsonetatik hiru errotuluak, hiri edo herrietako seinaleak bi hizkuntzetan jartzearen alde dira.
- Inkestaturen %24k okzitanieraz hitz egiten jakin edo ikasi nahi luke.
- %80ak nahi du eskolan okzitanieraz ikasteko aukera egotea.
- %48ak nahi du euren seme-alabek okzitaniera ikastea eskolan.

Orokorrean okzitaniarrek nahiko egoera txarrean ikusten dute beraien hizkuntza. Ezkorrak dira okzitanieraren egoeraz hitz egiteko garaian. Hala ere gehienek nahi dute okzitanierak irautea, bere presentzia present izatea.

### 3.5. OKZITANIERAREN HISTORIA OROKORRA

Okzitaniara, edo frantsesez *langue d'oc* deiturikoa, hizkuntza erromantzea da. Danteren "De vulgari eloquentia"n azaltzen da *Langue d'oc* izena lehenengo aldiz. Beste zenbait izen ere erabili da hizkuntza honetaz hitz egiterako garaian, adibidez: limusin, probentzala, gaskoiera... Probentzala izan da ezagunena. Hala ere XX. mendetik aurrera okzitaniara terminoa erabili da, hizkera guztiek bat egiten dute termino honetan.

Erdi Aroan okzitaniara (orduan *langue d'oc* deitua) kultura eta zibilizazio garrantzitsu baten hizkuntza izan zen. Gainera, literatur hizkuntza garrantzitsua izan zen (trobadoreen lirikan) eta administrazioan eta lege-arloan erabiltzen zen. Ohikoa zen bere erabilera.

XV. mendeaz geroztik okzitaniaren erabilera administratiboa jaitsi egin zen, eremu batzuetan beste batzuetan baino gehiago. 1550. urtean jada idatzizko eta ahozko erabileraren artean alde handia zegoen, nahiz eta garai honetan literaturaren pizkundera gertatu. Honela bada, Iraultza bitarte okzitaniaren ahozko erabilerak indar handia zuen eta osasuntsu iraun zuen.

Okzitaniar komunitateak bazuen bere hizkuntzarekiko interesik. Horren adibide da XIX. mende erdialdean agerturiko kultur berpizkunde berria: kultur mugimenduaren sorrera, Félibrige, Frédéric Mistral "Societat destudis Occitans", Okzitaniar Ikasketen Institutua (l'Institut d'Estudis Occitans) eta abar. Aipatzeko modukoak dira irakasle eta idazleen elkarteak. Mistralek sorturiko Félibrige deituriko mugimenduak eragin handia izan zuen garaiko okzitaniar literaturan. Bere ustez, umeei "almanach félibréens"-ak ikasiz gero, ez zuten okzitaniara berehalakoan ahaztuko. Hala ere mugimendu honek ez zuen okzitaniaren pixkanakako galera geldiarazi.

Félibrige-aren ondotik, beste berrikuntza batzuk gertatu ziren, adibidez 1935ean Louis Alibertek "La Grammatica occitana segon los parlars lengadocians" sortu zuen. Lan honek dialekto desberdinetako hitzunei elkar ulertzen lagundu zien, grafia sistema jakin bati esker.

1951ean Robert Lafont-ek "Phonétique et graphie du provençal" argitaratu zuen. Honek ere dialekto desberdinen transkribaketa ahalbidetzen du.

Botere publikoko zenbaitek okzitaniaren aldeko mugimenduak oztopatu ditu, batez ere Frantziar Estatuko administrazio publikoak. Bestalde, bertako administrazioak eta lurraldeko administrazioak jarrera ona eduki dute orokorrean. Hori dela eta, okzitaniaren irakaskuntzak pauso batzuk eman ahal izan ditu.

Europako instituzioei dagokienez, Europako Komunitateen Batzordeak dirulaguntza bat eman du zenbait ekintza sustatu asmoz (irakasle eta ikasle topaketak, Languedoc-Roussillon eskualdeentzako hiztegi informatiko bat jarri dute abian, Calandretas-i dirulaguntzak, okzitaniarazko lehen hezkuntzako eskolei dirulaguntza eta abar).

Nahiz eta okzitaniarak errepresio egoerak jasan dituen, oraindik ez da desagertu eta interesa sortzen jarraitzen du.

## 3.6. HIZKUNTZAREN ARLOZ ARLOKO EGOERA GAUR EGUN

### 3.6.1. TRANSMISIOA ETA INGURUNE HURBILEKO ERABILERA

Landa eremuetan, gehienak okzitanieraz hitz egiteko gai dira, baina %10ek soilik hitz egiten dute okzitanieraz normalean familia eta lagunekin. Okzitanieraren transmisioa ere beherantz doa landa eremuetan berrogeita hamargarren hamarkadaz geroztik. Unibertsitate mailako ikasketak dituzten guraso gutxi batzuek besterik ez diete okzitanieraz hitz egiten seme-alabei ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita)).

Bestalde, erlijio liburu garrantzitsuenen okzitanierazko bertsioa egon arren, oso elizkizun gutxi egiten da okzitanieraz.

Etorkizunean okzitanieraz jakitea ez omen da oso baliagarria hiztun askoren iritziz. Okzitanierak ez du prestigio handirik. Okzitanierarekiko interes handiagoa dago kultur balioagatik eta balio sinbolikoagatik bere erabilera praktikoagatik baino.

Beraz, eskolan okzitanieraz ikasten hasi zirenetik, ideia tradizionaleri aurre egin behar izan zaie. Izan ere okzitanierazko irakaskuntza debekatua zegoen, eta ohitura horri buelta ematea zaila izan da.

Gazteek, berriz, okzitaniera ikasten dute, baldin eta irakaskuntza eskaintza ona bada, edota irakaskuntzak giro aberatsa (kultur ekintzak...) badu. Hala ere okzitanieraz dagoen irakaskuntzak ez du beti baliabide oparorik izan.

### 3.6.2. IRAKASKUNTZA

Deixonne legeak (1951) eta beste dekretu eta zirkular batzuek eskualdeko hizkuntzak (langues régionales) irakasteko baimena ematen dute neurri batean, eta eskola pribatuei askatasun handiagoa ematen diete.

Haur hezkuntzako irakaskuntzan, berriz, okzitaniera hizkuntza nagusia da zenbait zentrotan (Calandretas-etan, dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten eskola pribatuak dira) eta ikasgai da beste zentru batzuetan. Gainerantzean, egoera oso aldakorra da toki batetik bestera. Orokorrean, okzitanieraz izaten diren eskoletan gero eta haur gutxiago matrikulatzen dira.

Lehen hezkuntza okzitanieraz egin dutenek ez dakite ikasketak okzitanieraz jarraitzerik izango duten, ez dago egonkortasunik.

Haur hezkuntzan eta Lehen hezkuntzan okzitanieraz ikasteko aukera eskaintzen zuten 17 Calandreta zeuden 1993an. Guztira 665 ikasle zituzten. ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita)). Eskola hauek egoera berean jarraitzen dute, ikasle kopurua antzekoa da.

Bigarren hezkuntzan, berriz, okzitaniera hautazko ikasgai da zentru batzuetan. Azken urte hauetan hazi egin da okzitaniera aukeratzen duten ikasleen kopurua. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dute ikasgai honen eskaintza desagertu egin daitekeela. Egoera berdina da lanbide heziketan.



Unibertsitatean okzitaniera irakasten zaie eskoletan irakasle izango direnei. Okzitaniera hizkuntza moderno gisa ikusia da unibertsitatean. Gaur egun 200 ikaslek egiten dituzte beraien ikasketak okzitanieraz, 1500 ikasle inguruk izaten dituzte klase batzuk okzitanieraz, eta guztira 3000 ikasleri irakasten zaie okzitaniera. Duela gutxi sortu zen okzitanierazko CAPES (Certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement secondaire) berria, gertaera garrantzitsua.

Bestalde, estatuak ez du neurri berezirik martxan jarri irakasleek okzitanierazko formakuntza jaso dezaten. Irakasleen okzitanierazko formakuntza ez dago ziurtatua. Gainera, ez dago egoera ikuskatzeko erakunde berezirik.

Calandretas eskolen inguruan sortu den herri ekimenak lortu du okzitanieraren irakaskuntzari bizia ematea, okzitanieraren aurkako ekintzak burutu diren arren (ikus 3.9). CAPES-a (Certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement secondaire) sortzea ere elkarte hauei zor zaie.

### 3.6.3. ARLO JURIDIKOA

Epaitegietan bakarrik frantsesaren erabilera onartzen da, ez bada egoera berezirik sortzen (adibidez, hiztun okzitaniar elebakar bat izatea).

Bestalde, legeak eta testuak frantsesez daude. Ez dute itzultzaile okzitanieradunik epaitegietan. Okzitanierak, beraz, ez du tokirik arlo juridikoan.

### 3.6.4. ZERBITZU PUBLIKOAK

Okzitaniera ez da sekula erabiltzen estatuko administrazioan, ezta hiritarrekiko harremanetan ere. Eskualdeko administrazioan ere gauza bera gertatzen da. Herri mailako administrazioan, berriz, okzitaniera noizbehinka erabili izan da.

Zerbitzu publikoek idatzian erabiltzen duten hizkuntza frantsesa da, eta ia inoiz ez da okzitaniera erabiltzen kasu hauetarako.

Okzitanieraren erabilerak behera egin du herrietan ere. Zenbait lekutan desagertu ere egin da. Hala ere, azken urte hauetan egoera ez da gehiegi aldatu. Herri ekimenak martxan jarri diren arren, nahiko ahulak izan dira emaitzak.

Abizenak okzitanieraz erabiltzea onartzen dute. Hala ere, oztopo handiak jartzen dituzte leku izenak, trafiko seinaleak eta errotuluak okzitanieraz jartzeko orduan.

### 3.6.5. KOMUNIKABIDEAK

Komunikabideetan okzitanieraren erabilera ez dago debekatua, baina ez dute dirulaguntza askorik jasotzen.

Aldizkari eta egunkari batzuek (La Marseillaise, La République des Pyrénées) artikulu edo orrialde bat argitaratu ohi dute okzitanieraz. Badira hala ere okzitanieraz idatzitako publikazio batzuk, urtean bi eta sei aldiz argitaratzen direnak. Okzitanieraren militanteek publikazio hauek argitaratzen lagundu dute. Languedoc-

Roussillon eta Midy-Pyrénées-eko botere publikoek dirulaguntza batzuk ematen dizkiete argitalpen hauei.

Ez dago okzitanierazko saiorik ematen duen irrati publikorik. Okzitanierazko saioak dituzten irrati pribatuak badaude, baina oso bakanak dira. *Radio Paü*-ek baditu okzitanierazko saioak. Beste zenbait irrati pribatuk tarte txikia eskaintzen diote okzitanierari: saioen %10-20a da okzitanieraz ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita)).

Egoera bera aurki dezakegu telebisten kasuan ere: okzitaniera France 3-ko saio berezi batzuetan besterik ez da entzuten. Ez da okzitanierazko filmerik edo okzitanierara itzulita dagoen filmerik zabaltzen telebistara. Telebista pribatuek ere ez diote tarterik eskaintzen okzitanierari, herri mailako noizbehinkako saio batzuetan izan ezik.

Informatikan berriz, arazoak besterik ez daude okzitanierazko aplikazio batzuk gauzatzean (Mac eta PCn). Logizial bat bakarra dago okzitanieraz: GIDILOC.

### 3.6.6. KULTUR PRODUKZIOA

Okzitanierazko 50 liburu argitaratu ziren urtero 1990-1992 urte bitartean. Batez ere umeentzako liburuak izan ziren, eskolako gidaliburuak, eleberri laburrak, poesia eta erlijio lanak.

Musika tradizionalan okzitanieraren presentzia nahiko handia da, talde eta abeslari batzuek (Jan Maria Carlotti, Rosina de Pèira, Claude Marti, etab.) bultzatutako ekimenei esker. Hala ere gaur egungo kantugintzan okzitanierak ez du hainbesterainoko indarrik.

Antzerkigintzan badira okzitanieraz lan egiten duten taldeak: La Carrièra, La Rampa, etab.. Talde hasiberri batzuek ere arrakasta izan dute. Eskualdeko agintaritzak dirulaguntzak ematen dizkie batzuetan honelako taldeei.

Film berezi batzuk besterik ez dira sortu okzitanieraz, esaterako: L'orsalhièr, Histoire d'Adrien, Champ d'honneur eta dokumental batzuk. Oraindik ez da filmik itzuli okzitanierara.

### 3.6.7. LAN MUNDUA

Lan bat aurkitzeko garaian okzitaniera ez da beharrezko baldintza izaten, ez dute okzitaniera jakiterik eskatzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi lanean okzitaniera baliagarria ez denik.

Kalean ez dago okzitanierazko iragarkirik. Soilik instituzioak igorritako mezu batzuk izaten dira okzitanierazkoak. Irratiz kanpaina batzuk okzitanieraz egiten dira. Bestalde, telebistan ez da okzitanierazko iragarkirik azaltzen, ez baitago okzitanierazko saiorik.

Batzuetan kontsumitzailearen informazio esparruan, okzitaniera bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko kanpainetan erabiltzen da, baina ez da kanpaina gehiagotan erabiltzen. Hori dela eta, zenbait ekimen sortu da okzitanieraren erabilera

handitzeko. Bestalde, Languedoc-Roussillon eskualdeak laguntzak ematen ditu sektore honetan okzitaniararen erabilera bultzatu asmoz.

### 3.6.8. TRUKAKETAK MUGAKIDEEKIN

Aran Haranarekin eta okzitaniaraz hitz egiten den Italiako bailarekin trukaketa asko egiten da. Batez ere kultura arloko ekimenak konpartitzen dituzte elkarrekin. Afera hauetan estatuak jarrera pasiboa hartu ohi du. Ez du parte hartzen trukaketa hauetan. Estatuak tokian tokiko erakundeengan uzten du gai honen zama guztia. Ez du interesik erakusten.

#### 3.6.8.1. Aranera ofiziala

Aran haranean ofiziala da aranera dialektoa, 1990. urteaz geroztik. Katalanarekin eta gaztelarekin batera da ofiziala aranera Aran haranean. Kataluniako Hizkuntza Normalizaziorako Legeak (1983) araneraren erabilera onartzen zuen, baina ez zen ofiziala oraindik. Hala ere, araneraren normalizazioa lortzeko konpromezua hartu zuen Kataluniako gobernuak. Honela bada, 1983. eta 1990. urteen artean Kataluniako gobernuak ekimen batzuk jarri zituen martxan: ortografia arauen argitalpenak, araneraren irakaskuntzarako arauak, administrazioan aranera erabiltzeko eskubideari buruzko araudia garatu zuen eta abar. Bukatzeko, hizkuntza ofizial izendatu zuten Aran bailaran, 1990. urtean.

## 3.7. OKZITANIERAREN HIZKUNTZA POLITIKA ETA ESTATUS JURIDIKOA

Konstituzioa eguneratu eta gero, frantsesa Errepublikako hizkuntza bakarra izango zela ezarri zen.

Hasteko, "1532 Villers-Cotterets" ediktuan zehaztu zen frantsesa zela epaiketetan erabili zitekeen hizkuntza bakarra. Beranduago, 1802. urteko maiatzak 1eko legeak frantsesaren irakaskuntza indartu zuen eta "patois"-en erabilera debekatu zen. Irakaskuntzari buruzko beste legea izan zen Jules Ferryrena (1881-1884). Lege honek frantsesaren irakaskuntza derrigortu zuen ume guztientzat.

Beranduago, azaletik hizkuntza gutxituen aldekoak ziren legeak atera ziren. Deixonne Legea, berez, 1951ekoa, tokian tokiko hizkuntza edo dialektoen aldekoa da. Urte batzuk geroago, 1982an Savary zirkularra atera zen. Honek, hizkuntza gutxituen, "langues regionales"en irakaskuntza arautzen du, ikasgai bihurtzen du.

Badira hizkuntza gutxituei buruzko beste bi zirkular gehiago: 1995eko apirilak 7ko zirkularra eta 1999ko maiatzak 3ko zirkularra. Lehenengoak, ondare nazionalako elementuak mantentzeko kezka azaltzen du, beraz, estatuak konpromezua hartzen du tokian tokiko hizkuntza eta kulturaren ikasgaiak sustatzeko. Bigarrenak, berriz, okzitaniar hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza indartu behar dela esaten du. Zirkular honek dio neurriak hartu behar direla okzitaniar hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza bultzatu eta indartzeko, beharrezkoak diren baliabide pedagogikoak martxan jarritz.

Eskualde batzuek (Languedoc-Roussillon, Midi-Pyrénées eta gutxiago Provence- Côte d'Azur) okzitaniar kulturaren aldeko politika jarri dute martxan. Politika honen bidez enpresa batzuei (irakaskuntza, fultur mugimenduak, publikazioak eta

abar) laguntza eman nahi diete eta okzitanierazko lan-eskaintza publikoa bultzatu nahi dute.

Languedoc-Roussillon eskualdea azken urte hauetan ahaleginak egiten ari da okzitanieraren eta kultura eta hizkuntza berreskuratzeko. Besteak beste 1991. urtean okzitanierari buruzko iritzia inkesta bat egin zuen eta 1993. urtean inkesta zehatz batzuk gauzatu zituen.

## 3.8. OKZITANIERAREN BEHERAKADA. ARRAZIOIAK, ERAGILEAK

### 3.8.1. MONARKIA GARAIAN

Okzitanieraren galera administrazio esparruan XV. mende bukaeratik XIX. mendera gertatu zen. XVI. mendean okzitanierazko grafia erabiltzeari utzi zioten. Azkenik Villers-Cotterêts ordenantzak administrazioan frantsesaren erabilera derrigortu zuen. Garai honetatik aurrera atzera pausua izugarria izan zen.

### 3.8.2. IRAULTZA GARAIAN

Hizkuntza bakarra frantsesa izan zen. Iraultzak nazio batasuna defendatzen zuenez, hizkuntza bakarra onartzen zuten: frantsesa. Hala ere, okzitanieraren ahozko erabilerak iraun zuen. Iraultza ideiak zabaltzeko erabili zen okzitaniera, jendea erakartzeko.

### 3.8.3. PRENTSAREN EKINTZAK

Iraultza eta gero Okzitaniako komunikabideek okzitanieraren aurkako jarrera hartu zuten. Jarraian bildu ditudan zenbait adibide:

- "L'echo du Vaucluse"n 1828an idatzitakoa: "Ce malheureux baragouin qu'il est temps de proscrire. Nous sommes français, parlons français" ("Argot madarikatu hau baztertzeko garaia heldu da. Gu frantsesak gara, frantsesez hitz egin dezagun").
- "La Gazette du Midi"n 1833. urtean: "Le patois porte la superstition et le séparatisme, les Français doivent parler la langue de la liberté" ("Patois-ak sineskeria eta separatismoa dakar, frantsesek askatasunaren hizkuntza erabili behar dute").
- "Le Messenger", 1840. urtean. " Détruisez, si vous pouvez, les ignobles patois de Limousins, des Périgourdins et des Auvergnats, forcez les par tous les moyens possibles à l'unité de la langue française comme à l'uniformité des poids et mesures, nous vous approuverons de grand coeur, vous rendrez service à ses populations barbares et au reste de la France qui n'a jamais pu les comprendre". ("Ezabatu ahal bada Limousin, Auvergnats eta Perigourdins-eko patois-ak, behartu itzazue neurri mota guztiekin frantses hizkuntzaren batasuna lortzera; mesede egingo diezue biztanle barbaro horiei eta baita haiek inoiz ulertu ezin izan dituzten Frantziar guztiei ere"). ([www.wikipedia.org/wiki/occitan](http://www.wikipedia.org/wiki/occitan))

#### 3.8.4. ESKOLA ERREPUBLIKA GARAIAN

XX. mende hasiera arte Okzitaniako biztanle gehienek okzitanieraz bakarrik hitz egiten zuten. Garai honetan gertatu zen okzitanieraren ahozko erabileraren galerarik handiena, eta batez ere, egoera honen eragilea Frantziako Errepublikako eskola izan zen. Errepublika garai honetan eskola dohainik eta derrigorrezkoa zen denentzat. Beste alde batetik, Frantziar hezkuntza sistemak okzitanierari izugarritzko kolpea eman zion. Okzitaniar hiztunak euren hizkuntza erabiltzeagatik errudun sentiarazi zituzten.

Frantsesaren erabilera indartzeko sistema nagusia errepresioa izan zen. "Patois"-a erabiltzea debekatuta zegoen eta zigortu egiten zuten. "Patois" hitzak zentzu txarra zuen, peioratiboa. Helburu nagusia okzitaniera menperatu eta desagertaraztea izan zen.

Lehenengo hezkuntzako idatzia, 1893. urtean: " Le patois est le pire ennemi de l'enseignement du français dans nos écoles primaires. La ténacité avec laquelle dans certains pays, les enfants le parlent entre eux dès qu'ils sont libres de faire le désespoir de bien des maîtres qui cherchent par toutes sortes de moyens, à combattre cette fâcheuse habitude. Parmi les moyens il en est une que j'ai vu employer avec succès dans une école rurale de haute Provence... Le matin, en entrant en classe, le maître remet au premier élève de la division supérieure un sou marqué d'une croix faite au couteau...Ce sou s'appelle : le signe. Il s'agit pour le possesseur de se signe (pour le « seigneur » comme disent les élèves) de se débarrasser du sou en le donnant à un autre élève qu'il aura surpris prononçant un mot de patois. Je me suis pris à réfléchir au sujet de se procédé... C'est que je trouve, à côté de réels avantages, un inconvénient qui me semble assez grave. Sur dix enfants, je suppose qui ont été surpris à parler patois dans le journée, seul le dernier est puni. N'y a-t-il pas la une injustice ? J'ai préféré, jusque-là, punir tous ceux qui se laissent prendre [...] ".

("Patois-a fsantsesaren irakaskuntzaren etsai nagusia da. Zenbait herrialdetan, haurrek "patois"-ez hitz egiten dute euren artean ahal duten guztietan, eta irakasleek bitarteko guztiak martxan jartzen badituzte ere, ezin dute ohitura malapartatu hori ezabatu. Bitarteko on bat Proventzan, nekazal giro bateko irakasleak erabiltzen duena iruditu zait... Goizean, irakasleak klasean sartzean dibisio nagusiko lehenengo ikasleari labana batez markatutako zentimo bat ematen dio, zentimo honek "seinale" izena du. Ikasle honek "seinalea" pasako dio "patois"-ez ari den ikasleari... Nahiz eta metodo ona izan, eragozpen bat ikusten diot sistema honi. Patois-ez hitz egiteagatik seinalea izan duten hamar umeren artetik, azkenekoa bakarrik zigortzen dute. Ez al da injustizia bat? Nik denak zigortuko nituzke (...) "), ([www.wikipedia.org/wiki/occitan](http://www.wikipedia.org/wiki/occitan)).

#### 3.8.5. GIZARTE ALDAKETAK

XX. mende hasierako aldaketek hizkuntzaren galera prozesua bizkortu zuten. Industria Iraultzan eta urbanizazio garaian okzitanieraz besterik ez jakiteak lanpostu garrantzitsuak lortzeko zailtasunak ekarri zituen. Honen guztiaren ondorioz, guraso askok erabaki zuen soilik frantsesez hitz egitea euren seme-alabei. Hori dela eta, belaunaldi berrientzat, frantsesa administrazio eta eskolako hizkuntza izateaz gain, ama-hizkuntza ere bazen.

### 3.8.6. DEMOGRAFIA JAITSIERA

Frantzian, 1914-1918ko gerran 1 300 000 hildako izan ziren. Bi herenak Okzitaniako lurretan hil ziren. Ez zuten seme-alaba askorik izaten bestalde. Okzitaniarren demografia jaitsierak lotura zuzena du hiztun kopuru jaitsierarekin ([www.wikipedia.org/wiki/occitan](http://www.wikipedia.org/wiki/occitan)).

### 3.8.7. INMIGRAZIOA

Lehenengo Mundu Gerrako biztanle galeraren ondoren, Okzitaniak harrera ona egin zien etorkin berriei (espainiarrak, italiarrak, armeniarak, etab.). Etorriberriek ordurako garrantzi handia hartzen ari zen hizkuntza ikasi zuten: frantsesa. Etorkin hauek batez ere hiri nagusienetan bizi ziren. Beraz, okzitaniarrek gune honetan indar handia galdu zuten, eta nekazal-eremuetan iraun zuten. Landa eremura etorri ziren etorkin gehienek okzitaniara ikasi zuten eta baita euren seme-alabei transmititu ere.

### 3.8.8. OKZITANIERAREN AURKAKO BESTELAKO JARRERAK, FOBIAK

Okzitaniararen aurka daudenek honelako diskurtsoak plazaratu dituzte:

- Toulouseko aldirietan dagoen kolejio bateko arduradun nagusiak 1990. urtean esandakoa: " Avec 4000 francs je pourrais acheter une mitraillette et en finir avec l'occitan ". ("4000 frankoren truke okzitaniara desagerrarazi dezakeen metraileta bat eros dezaket").
- Alpes Maritimes-eko alkate batek esana 1990. urtean. "Le nissart est inutile parce que les Niçois parlent très bien le français ". ("Nizako hizkerak ez du ezertarako balio Nizako jendeak frantsesez oso ongi hitz egiten baitu").
- Danièle Salenave, Le Monde 1999ko uztailak 3ko alea. "Notre vision des << langues>> et des << cultures >> régionales, aseptisée, baigne dans la niaise brume des bons sentiments écolo-folkloriques et se nourrit d'images d'un passé revisité... Ce ne peut être un objectif national. En proposant aux jeunes générations un retour à des langues qui n'ont survécu que dans les formes parlées, pour l'essentiel privées de l'indispensable passage à la maturité que donne la forme écrite, littéraire, philosophique, croit-on sérieusement leur offrir un avenir de travail, d'insertion sociale, de pensée ?" ("Eskualdeetako edo "regioetako" kulturaz eta hizkuntzaz dugun ikuspegia mozoloa da, sentimentu folklorikoek eta hainbeste aldiz gainbegiratutako iraganak... ezin du nazioaren lehentasuna izan. Belaunaldi berriei hizkuntza hauek erakusten badizkiegu, lanerako, etorkizunerako aukerak emango dizkiegula uste al dugu?"). ([www.wikipedia.org/wiki/occitan](http://www.wikipedia.org/wiki/occitan))

## 3.9. FRANTSESAREN ZABALKUNTZA: IRAKASKUNTZAREN BIDEZ

Irakaskuntzak lotura handia du okzitaniararen beherakadarekin. Irakaskuntza izan zen frantsesa zabaltzeko tresna, okzitaniara alde batera geratuz. Hala ere, bi garai bereiziko ditugu Okzitaniako irakaskuntzaren barnean: 1800-1950 erreprezio garaia eta 1950-2000 baimenen garaia.

### 3.9.1. 1.GARAIA: 1800-1950. ERREPRESIO GARAIA. FRANTSESEZ HITZ EGIN!!

Iraultza ondorengo urteetan eskualdeetako hizkuntzez edo Frantzian “langue regional” deiturikoez baliatu ziren herriari lege berriak, berrikuntzak eta iraultza politikaren nondik norakoak azaltzeko. Konbentzioak agudo ikusi zuen Frantzian zegoen aniztasunak batasun nazionala oztopa zezakeela. Hori dela eta, neurriak hartzen hasi zen. Besteak beste tokian tokiko hizkuntzen aurka jotzen zuten, eskualde aniztasunen aurka zeuden. Iraultzaren kalterako zirela uste zuten.

Berrikuntza azaldu ziren lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzan (François Guizot 1836-37, Victor Duruy 1863-69, Jules Ferry 1879-1883). Uniformizazio prozesua jarri zen abian: programa eta eduki berak, frantsesaren derrigortasuna eta eskualdeko hizkuntzen bazterketa.

Errepresio sistema bat sortu zen, “patois”-ak edo tokian tokiko hizkuntzen erabilera zigortzeko. Asto-burukoak, ganean eramateko errotuluak, ahoa ixteko zapiak...horiek guztiak erabili zituzten okzitanieraren erabilera zigortzeko. Hartutako neurriak umiliaziozkoak izan ziren, eta belaunaldi askotako ikasleek jasan zituzten zigor hauek.

Helburua ama-hizkuntza asko desagertaraztea izan zen, tokian tokiko hizkuntzak eta baita kolonizazioen ondorioz agertu ziren hizkuntzak ere. Gaur egun musulman frantses askoren ama-hizkuntza da frantsesa. Lehen, ordea, bai hirietako etorkin bai nekazal giroko herritar askok mantendu zuten euren “patois”-a: bretoiera, alsaziera, okzitaniera, euskara, korsikera... eta beste hizkuntzak: kabylea, arabiera, berberea eta abar.

### 3.9.2. 2.GARAIA. 1950-2000. BAIMENEN GARAIA. ALSAZIERAZ, EUSKARAZ, BRETOIERAZ, KORSIKERAZ, OKZITANIERAZ HITZ EGIN AHAL DUZU.

Lege batek irakaskuntzako egoera aldatu zuen, askatasun handiago uzten zuen tokian tokiko hizkuntza eta kultura irakasteko. Maurice Deixonneri esker sortu zen lege hau, Deixonne legea, 1951ko urtarrilak 11koa. Legearen proiektua berak aurkeztu zuen. Deixonne legeak tokian tokiko hizkuntzen izaera eta irakaskuntza eskubidea onartu zuen lehen aldiz. Hala ere, tokian tokiko hizkuntzen irakaskuntza esparrua oso mugatua zen.

Deixonne Legeaz geroztik beste bi zirkular atera ziren: bata, 1982ko ekainaren 21ekoa (tokian tokiko hizkuntzen irakaskuntza hobeto zehazten duena haur hezkuntzan eta lizeoan), eta bestea 1983ko abenduaren 30ekoa (helburuak, metodologia eta irakasleen lanaren nondik norakoak zehazten dituena).

1995eko apirilaren 7ko zirkularrak garrantzia handia izan zuen: tokian tokiko hizkuntzen irakaskuntzan erabiltzen diren testuak aztertzen ditu, irakaskuntza organuen antolakuntza zehazten du eta eskola, kolejio eta lizeoen antolakuntza orokorra arautzen du.

Pognant-en “Langues et cultures régionales” idatziak tokian tokiko hizkuntzen irakaskuntzako egoera azaltzen du, nahiko era zehatzean. Idatzi hau Frantziako Lehen Ministroari igorri zitzaion 1998an, eta neurri batzuk onartu zituen. Orokorrean puntu hauen aldeko konpromezua azaldu zuen: Europa, deszentralizazioa, frankofonia eta

hizkuntza aniztasuna. Sinadura prozedura honek balio sinbolikoa besterik ez zuen izan, estatu osoan hitz egiten ziren hizkuntzak onartzeko balio zuena, besterik gabe, ez zuen erreforma azpimarragarririk ekarri.

### 3.9.3. OKZITANIAKO HIZKUNTZA ETA KULTURAREN ALDE

Tokian tokiko hizkuntza eta kulturaren aldeko legeak garatuz joan dira pixkanaka-pixkanaka. Legeen berrikuntzak tokian tokiko hizkuntza eta kulturaren beherakadarekin bat egin zuen. Hirurogeigarren hamarkadan nekazaritzaren beherakada, emigrazioa, landa-eremuen hustutzea, hizkuntza eremuak galtzea (kafeak, tradiziozko festak, azokak...) gertatu ziren. Hizkuntzak galera handia izan zuen garai honetan.

70eko hamarkadan berriz, okzitaniera hizkuntza gutxituen defentsarako erabili zen, errebindikazio hizkuntza bihurtuz: "Gardarem lo Larzac", "Volem viure al país"...

Okzitanieraren irudia aldatu egin zen gertaera historiko horien ondorioz. Garrantzia handiagoa lortu zuen hizkuntzak eta kulturaren oinarritzko ondare bihurtu zen. Norberaren identitate sentimendua areagotu zen. Literatura produkzioa hazi egin zen. Antzerkigintza, musika ekoizpenak handitu ziren, baina batez ere elkarteen arteko sare bat eratu zen.

Okzitanierari buruzko iritzi aldaketa honekin batera etorri zen irakaskuntza sistemaren aldaketa: garapen programa berri bat, oinarritzko mezuak ezartzea, irakaskuntza metodo berrien txertaketa eta abar. Hala ere, Okzitanian bertako hizkuntzaren irakaskuntza indartu nahian bertakoen ekimenez "calandretas" eskolak sortu ziren, oraindik orain euren irakaskuntza sistema garatuz eta aberastuz doaz (ikus 3.10).

## 3.10. OKZITANIERAREN ALDE EGINDAKO AHALEGINAK. Les Calandretas

Okzitanieraren eremua murriztuz zihoan bitartean, egoera horri aurre egiteko mugimendu indartsu bat sortu zen Okzitanian: Okzitaniar literaturaren mugimendua. Okzitaniar literaturak indar handia zuen 1650-1850 urteetan. Idazle garrantzitsuenek uste zuten okzitanieraz idazten bazuten prestigioa emango ziotela hizkuntzari. Garai honetako idazle garrantzitsuenak Jacques Boé eta Jean Reboul izan ziren. Hala ere lehenago ere okzitaniako lirikak bazuen garrantzia handia. Beraz, okzitanieraren etorkizuna literatur tradizioaren garrantziari loturik zegoen erabat, orduko okzitaniarren ustez.

Bigarren berpizkundea edo ahalegina ere literaturaren bidetik etorri zen, "Felibrige mugimenduaren" eskutik. Mistral eta beste batzuek hizkuntzari prestigioa eman nahi zioten, literatur ekoizpena handituz. Euren nahia borondate politiko batekin uztarturik zegoen. Félibrige mugimenduari esker idazle ezagun asko sortu zen. Honekin batera okzitanieraren gramatikak eta hiztegiak argitaratu ziren eta okzitanieraren grafia sistema ere eguneratu egin zen.



XX. mendean okzitaniaren galera izugarria izan dela ikusi dugu. Hala ere zenbait autorek okzitaniaren alde egindako lana aipatzeko modukoa da:

- Max Rouquette (1908-2005). Okzitaniar kulturaren alde lan handia egin du, eta bere errebundizioak ozenak izan dira. Hizkuntza askotara itzuli dituzte bere lanak.
- Félix-Marcel Castan (1923-2001). Filosofoa. Okzitaniaren aldeko mugimenduan ekarpen asko egin ditu eta kultur deszentralizazioari buruzko gogoeta garrantzitsuak egin ditu.
- Bernard Manciet (1923-2005). Gaskoia, garai honetako poeta garrantzitsuenetariko bat.
- Robert Lafont (1923) . Unibertsitateko irakasle, hizkuntzalaria, okzitaniar literaturaren historialari, entsaiu egile, poeta...
- François Fontan, "etnismo" printzipioen sortzailea.  
([www.wikipedia.org/wiki/occitan](http://www.wikipedia.org/wiki/occitan)).

Bestalde, IEO (Institut d'estudis occitans) 1945. urteaz geroztik okzitaniaren alde egiten ari den lana azpimarragarria da. Okzitanierak egin dituen aurrerapauso asko zor zaizkio Institutuari. Institutuak arlo hauetan egiten du lan: ikerketak, hitzaldiak, argitalpenak, formazio saioak, topaketak, musika eta artearen zabalkunde lanak, mota askotako liburuen ekoizketa lanak eta abar. Gainera IEO barnean dauden arloek nazioko kultur ekintzetan hartzen dute parte.

Deixonne legeak okzitaniaren irakaskuntza legeztatu zuen, besteak beste. Lege honen ondotik sortu zen 1991n okzitaniarako CAPESa (Certificat d'aptitude pédagogique à l'enseignement secondaire) , hau da okzitaniara irakasteko trebatuta dauden irakasleen ziurtagiria. Azkenaldian, ordea, Frantziako gobernuak bertako irakasleen kopurua asko murriztu du, eta espezialitateak indarra galdu du, okzitaniarako irakasleen ikasketak kolokan utziz.

Jarraian Calandretas ikastetxeei buruz mintzatuko naiz. Okzitaniaren alde egin den mugimendu garrantzitsuenetarikoa iruditzen zait. Alde batetik, okzitaniara eta Frantziako hizkuntza gehienek jasan duten kaltea neurri handi batean Frantziako hezkuntza sistemak urteetan zehar eragin du. Bestetik, Calandretas ikastetxeak kalte horri erantzuten saiatzen ari dira, nahiz eta galdutakoa berreskuratzea zaila izan. Gainera, herriak bultzatutako ekimena izan da. Orain arte ekimen garrantzitsuenak idazle eta intelektualek sustatu dituzte. Beraz, Calandretas eskolen ezaugarri nagusiak eta bilakaera azalduko ditut.

### **3.10.1. LES CALANDRETAS**

Pau eta Béziers-ko guraso taldeak okzitaniarazko eskolak sortzeko mobilizatzen hasi ziren 1979. urtean. Sortzaileek ez zuten inongo zalantzarik izan: *Calandreta* eskola publikoa izango zen, laikoa eta doakoa. Eskolak handik bi urtetara ireki ziren: Toulousen, Montpellieren, Oloronen, La Teste de Buchen izan ziren lehenengoak.

Gaur egun, 37 calandreta eskola dago, eta nahiko aurreratuak dauden 6 proiektu. Eskola publikoa helburu, Hezkuntza Nazionalari eskatu zaio eskola hauen erantzunkizuna beraien gain hartzeko. 1994. urtean Hezkuntza Nazionaleko ministro zen François Bayrou-k asoziazio izaerako eskola pribatua proposatu zuen: Calandretak berezko izaera berezia duelako, elebiduna delako, laikoa eta pedagogia

berria erabiltzen duelako. 1999ko apirilean Frantziar Errepublikak hizkuntza gutxituen Europako Karta sinatu zuen eta Hezkuntza Nazionalak Calandretei estatus publikoa emateko negoziazioak hasi zituen.

Calandretak okzitanieraren formazio pedagogikorako zentro bat sortu du irakasleentzat.

Limoges-en calandretaren proiektua 1992. urtean azaldu zen, eta asoziazio edo elkarte izaera izango zuen. Eskualdeko Kontseiluaren mantenua lortu zuen. Azkenik, 1994. urtean ireki zen Calandreta Lemosina haur eskola. Estola honek berak, 1999. urtean asoziazio kontratu bat sinatu zuen estatuarekin: estatuak berak ordainduko zuen irakasle baten soldata. Aurrera jarraitzeko aukerak azpiegiturekin zerikusi handia dute. Baldintza onak izatea ezinbestekoa da. Hori dela eta, ezinbestekoa da udalen dirulaguntzak ere izatea.

Montpellierren, 1997ko irailean Calandreta kolejio bat sortu zen, lehen hezkuntzako eskolari jarraipena eman nahian. Horrelako beste proiektu batzuk daude jada martxan Toulousen eta Paun. Horrez gain, Calandretas-ek ikerketa institutu bat ere sortu du: Latinitas.

## 4. KORSIKERA

### 4.1. DESKRIPZIO DEMOGRAFIKO LINGUISTIKOA

Korsikera hizkuntza erromantze bat da, Italia erdialdeko dialektoen antzekoa. Mediterraneoko Korsika uhartean hitz egiten da. Korsika uhartea Nizatik 170 kilometrotara dago hegoaldean, ekialdera 84 kilometrora Italiako penintsula eta hegoaldera 14 kilometrora Sardinia Italiar uhartea dago. Korsikak 8681 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Uhartea bi departamentuk zatitzen dute: Haute-Corse eta Corse-du-sud departamentuek.

Korsikerak Toskanako hizkerarekin antzekotasun handia badu ere, historian beranduagokoa da italiara estandarraren sorrera. Korsikera Frantziako hizkuntza minoritariorik indartsuenetakoa da, nahiz eta frantsesaren erabilera pixkanaka handituz joan. Ezaugarri linguistikoez hitz egitean, berriz, azpimarratzeko modukoa da uhartearen hegoaldean hitz egiten den bonifaziera. Batzuek hizkuntza independentetzat badute ere, bertakoek, korsikarrek, euren hizkuntzaren beste aldagaitzat dute. Beraz, atal honetan bonifaziera korsikeraren barnean sartuko da, korsikarren irizpideei jarraituz.



9.irudia: Korsika uhartea. Kokapena.  
(Iturria: [www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm))

Korsikako biztanle kopurua 1990.urtean 253.992 pertsonakoa zen (zentsua, 1990). Korsikan jaiotakoek metropolira alde egiteko joera izan dute, batez ere bi mundu gerraz geroztik. Ez dago lan finko askorik, uhartearen egoera ekonomikoa nahiko ahula baita.

Hala ere Bigarren Mundu Gerra eta gero etorkinen kopurua hazi egin zen Korsikan. Frantzia kontinentaletik etorri ziren gehienak, hirugarren sektorearen indarrak eta turismo industriak erakarrita. Frantziako etorkin hauen etorrerak eta bertako biztanleen kostarako migrazioak uhartearen bilakaera soziolinguistikoa aldatu zuen. Dirudienez, biztanleen %50a gutxi gorabehera uhartetik kanpo jaio da ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors)).


Korsikako biztanleen erdia 10 000 eta 50 000 biztanle arteko herrietan bizi da. Beste erdia landa eremuan bizi da.

Korsikako egoera ekonomikoa ez da oso ona, nahiz eta hirugarren sektorea indartsua izan. Frantziako beste eskualdeekin konparatuta, Korsikako maila

ekonomikoa ahulagoa da. Gainera, korsikeradunen maila ekonomikoa gainerako biztanleena baino baxuagoa dela dirudi (www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors).

## 4.2. KORSIKERAREN EZAGUTZA


Korsikak 250 000 biztanle ditu, eta horien %60k badaki korsikeraz mintzatzen (France-Presse, 1999). XX. mende hasieran ia denek zekiten korsikeraz, baina mende honetan egoera aldatuz joan da. Biztanleen %60a korsikarra edo bertakoa den bitartean, beste % 40a Frantziako metropolikoa eta etorkina da (batez ere Portugal eta Afrika iparraldekoa). Beraz, Korsikan beste hizkuntza batzuk ere badira: arabiera, Tunisiako arabiera, italiara eta portugesa.



10. irudia: Korsikeraren ezagutza orokorra, 1999. (Iturria: France-Presse, 1999)

### 4.2.1. KORSIKERAREN TRANSMISIOA

Helduen erdiak baino gehiagok aitortu dute gurasoek edo bietako batek korsikeraz hitz egiten ziola txikitan normalean edo askotan (INSEE, 1999). Korsikeraren transmisioa beraz 106 000 pertsonak jaso dute. Transmisioak urteak aurrera egin ahala behera egin du. Jarraian Korsikako biztanleen hizkuntza transmisioa aztertuko dugu. Lehenengo mundu gerraren aurretik jaiotakoen %70en ama-hizkuntza izan da korsikera. Bigarren mundu gerra eta gero jaiotakoen %55ak ikasi du korsikeraz gurasoengandik eta gazteen %41i hitz egiten diote korsikeraz euren gurasoek. Datuak hazi egiten dira bertan jaiotakoez ari garenean: aurretik emandako datuak aintzakotzat hartuz %90, %80 eta %44k ikasi dute korsikera gurasoengandik hurrenez hurren (INSEE, 2004).



11. irudia: Korsikeraren transmisioaren bilakaera. (Iturria: INSEE, 2004)


Korsikarrei seme-alabekin erabiltzen duten hizkuntzari buruz galdetu zaie. Korsikarren %35ek korsikeraz hitz egiten dietela esan dute. Beraz, transmisioa, %60koa da korsikeradunen artean. Hau da, txikitan korsikera jaso dutenetatik %60k hitz egin die korsikera ondorengoei. Korsikaz kanpo bizi diren korsikeradunen %25ek erakutsi diete hizkuntza seme-alabei (INSEE 2004).

### 4.3. KORSIKERAREN ERABILERA

Korsikarren %45ek adierazi du hurbilekoekin korsikeraz hitz egiten duela. Hala ere, datuek behera egin dute urteak igaro ahala. Gaur egun egoera honakoa da: XX. mende hasieran jaiotakoek %60k hitz egiten du korsikeraz normalean. Berrogeigarren hamarkada inguruan jaiotakoek artean, berriz, kopurua %50era jaisten da. Gazteek, berriz, 35-20 urte dituztenen artean, %40k hitz egiten du normalean korsikeraz eta 20 urtetik behera dutenen %33k aukeratzen du korsikera. Datuok, hala ere, Frantziako beste hizkuntza batzuetako datuak baino baikorragoak dira. Hala eta guztiz ere, kopuruak beherantz doaz (INSEE, 2004).

Korsikeraz toki batzuetan besteetan baino gehiagotan hitz egiten da: Haute-Corse-n %54 eta Corse-du-sud-en berriz %40.

Bestalde, 1999an egindako inkestan 1977an ezaguna zen datu bat berriz errepikatzen da. Emakumeek korsikeraz gutxiagotan hitz egiten dute gizonezkoek baino: emakumezkoak %40, gizonezkoak %50.



12. irudia: Korsikeraren erabilera hurbilekoekin (Iturria; INSEE 2004)

Korsikan jaiotakoek eta guraso edo aiton-amonak korsikarrak dituztenek euren hizkuntzan hitz egiteko joera handiagoa dute. Izan ere, 35 urtetik beherako korsikeradunen artean, %60k hitz egiten du normalean korsikeraz. Biztanleria osoarekin alderatuz, desberdintasuna badagoela ikus dezakegu. Honekin batera transmisioak erabileran duen eraginaz ere ohar gaitzke.

#### 4.3.1. NEKAZARIAK KORSIKERAREN ERABILTZAILE

Erabilera ez du soilik adinak baldintzatzen, lanbidearen arabera ere erabilera aldatu egiten da maiz. Korsikeraren erabiltzailerik nagusienak honakoak dira: nekazariak, gero artisauak, dendariak, enpresa munduko nagusiak eta jubilatuak. Nekazariak korsikeraz gehien hitz egitea ez da kasualitate hutsa, izan ere, adinez nahiko nagusiak dira. Beraz, adinak eta lanbideek lotura handia dute euren artean. Aldiz, peoiak eta goi-mailako intelektualak dira korsikeraz gutxien hitz egiten dutenak. Normalean, nekazari gehiago da berez uhartekoa azken talde honetan dagoena baino.

Korsikeraren transmisioak behera egin du. Gainera, gazteenek gutxiago erabiltzen dute korsikera, nahiz eta ikastetxeetan hizkuntza ikasi. Adineko gehienek ulertzen eta mintzatzen dute hizkuntza, eta gehienentzat korsikera ama-hizkuntza da. Baina joera hau beherantz doa. Beraz, egoera honakoa da: transmisioa gero eta txikiagoa da, erabilera jaitsi egin da nahiz eta ikastetxeetan hizkuntza irakatsi. Korsikar gazte askok ezagutzen du bertako hizkuntza, baina gutxik hitz egiten du askotan.

XX. mende hasieran egindako ikerketek zioten biztanleriaren %100ek hitz egiten zuela korsikeraz. 1982an INSEEk egindako inkestan, berriz, kopuruak %70era egin zuen behera. Hala ere korsikarren %96k korsikera ulertzen zuen eta %86k hitz egiten zuen normalean korsikeraz.

Gaur egun, korsikera ez da gazte askoren ama-hizkuntza izan. Nolanahi ere, askok 18 urte bete eta gero ikasi du korsikera, arrazoi militante eta nortasun arrazoiak direla medio. Bastiako lizeo batean egindako inkesta batean (L'Express, 2001), ikasleen %63aren aitona-amonak korsikeradunak ziren eta %60ren gurasoak ere korsikeradunak. Ikasle guztien neba-arreben %13a besterik ez zen korsikeraduna.

Ondorio bat atera daiteke honekin guztiarekin: azkeneko hogeitau urte hauetako joera nagusia frantsesarenganako da.

Korsikeradun gehienak elebidunak dira (korsikera-frantsesa) eta diglosia egoeran daude. Hala ere, korsikerak oraindik orain baditu aldagai batzuk, eta badago desberdintasunik hegoaldeko eta iparraldeko korsikeraren artean. Hala eta guztiz ere, guztiek arazorik gabe elkar ulertzen dute.

Korsikeradunen arteko elkarrizketetan korsikeratik frantsesera pasatzeko joera handia erakutsi dute askok. Orokorrean, frantsesa maila jasoagoetarako erabiltzen dute, eta korsikera berriz lagun edo familiarterako harremanetarako. Honek guztiak sistema linguistiko berezi bat sortu du, non batzuetan, frantseseko elkarrizketetan korsikerazko hitzak sartzen diren edo alderantziz (Thiers, 1989). Egoera diglosikoak sortu duen aldagai honi "francorsu" deitu izan zaio.

#### 4.4. KORSIKERAREN HISTORIA OROKORRA

Latina erromatarren etorrera eta gero sartu zen uhartera (K.a. 259) eta I. mendean zehar erromatartze prozesua gertatu zen. Erromatar Inperioaren gainbeherarekin batera erromatar kolonia zaharrak zatitu eta honela jaiotzen ziren korsikera. Laister sortu ziren hiru dialektu multzo nagusi: iparraldeko dialektuak, hegoaldekoak eta Bonifazioko hizkera berezia.

Korsika, XIV. Mendetik XVIII. mende bukaera arte Genevako errepublikaren zati izan zen. Honek egoera diglosiko bat ekarri zuen. Egoera diglosikoaren ondorioz korsikerak Toscanako hizkuntzaren formak hartu zituen. Izan ere, Toscanako hizkuntzak estatus menperatzailea hartu zuen eta korsikerak berriz menperatuarena (Chiorboli, 1999).

Korsika Frantziakoa izatera pasatzean (1789) aurreko egoera aldatu egin zen. Garai honetako kultura arduradun nagusiak Korsikako hizkerak batzeko saiakerak egin zituzten. Hala ere, egoera diglosikoak jarraitu zuen, nahiz eta oraingoan korsikera-frantsesa hizkuntzen diglosia izan.

Nahiz eta Frantziak Korsika konkistatu, italiar kulturak bertan iraun zuen eta gizarteko eta kulturako zenbait arduradunek Italiako unibertsitateetara joaten jarraitu zuten, besteak beste Pisa, Roma eta Paduara.

III. Errepublikan ezarritako derrigorrezko hezkuntzarekin batera frantsesa ere zabaldu egin zen Korsikako gizartean, baita isolatuta zeuden landa-eremuetara ere. Hala ere eguneroko jardunean korsikerak nagusi izaten jarraitu zuen.

XIX. mendean, ekonomia aldaketa garrantzitsua izan zen. Ekonomia jarduera berrien eta nekazaritzaren arteko desoreka bat gertatu zen. Ekonomiak desoreka azpimarragarria jasan zuen eta horrekin batera Korsikako gizartea, kultura eta hizkuntza egoera aldatu egin ziren. Honek guztiak, mugimendu nazionalisten sorrera ekarri zuen, XX. mendean. Besteak beste, I. Mundu Gerraren hasieran "A Crispa" aldizkariak korsikar mugimenduaren oinarrian zegoen plan kulturalaren eta politika arloko errebindikazioen berri eman zuen.

1923. urtean *Partitu Corsu d'Azione* alderdi "autonomista" sortu zen, Korsikako kultur eliteak bultzaturik. Alderdi honek Korsikarako Altsazia-Lorenak zuen autonomia administratiboa lortu nahi izan zuen. Hala ere, garrantzitsua da alderdi honek Korsikako kultura zabaltzeko egin zuen lana: aldizkariak argitaratzea, olerki lehiaketak, antzerki piezak, korsikerara egindako itzulpenak eta abar.

Hogeita hamargarren hamarkadan, korsikerak ez zuen arau linguistiko zehatzik. Egoera honek eztabaida bat baino gehiago sorrarazi zuen erakunde desberdinen artean. Arau multzo zehatzik ez izateak Deixonne Legearen onurarik ez izatea ekarri zion korsikerari. Korsikera italieraren dialekto gisa tratatua izan da. Hori dela eta, arau multzo baten beharra izan du, onarpen ofiziala lortu ahal izateko. Onarpen ofizialarekin batera diglosiak sor ditzakeen arazoei aurre egitea errazago izango zukeen.

Hogei urte beranduago, gizarte eta kultura mugimendu berria sortu zen. Nazio mugimenduak garrantzia berezia eskaini zion korsikerari, bertako politika planean tarte garrantzitsua eskainiz. Honela, presio handiaren ondorioz, 1974. urtean Deixonne legean korsikera sartzea lortu zen. Eragindako presio honen ondorioz, korsikerak indar handiagoa lortu zuen: prentsan esparru handia lortu zuen, korsikerazko irratsaioak, zenbait lehiaketa eta abar.

Azkenik, 1983. urtean Korsikako Asanbladak korsikeraren derrigorrezko irakaskuntza onartu zuen. Hala ere, hasiera batean Frantziako gobernuak atzera bota zuen proposamen hau. Baina alderdi nazionalistek, kultur eta gizarte eragile desberdinek aurrera eramandako mobilizazioei esker, Frantziako gobernuak korsikerazko irakaskuntzaren eskaera batzuei baiezkota eman behar izan die.

## 4.5. HIZKUNTZAREN ARLOZ ARLOKO EGOERA GAUR EGUN

### 4.5.1. TRANSMISIOA ETA INGURUNE HURBILEKO ERABILERA

Lehen esan bezala, II. Mundu Gerra eta gero korsikeraren transmisioak behera egin zuen eta prozesu horrek berdin jarraitzen du. Hirietan bizi diren guraso askok ez die korsikeraz hitz egiten seme-alabei. Ondorioz, korsikeraren erabilera ahulduz doa familia barruan. Hori dela eta, belaunaldi berriko gazte askok frantsesa du ama-hizkuntza.

Gaur egungo egoera hau faktore desberdinen ondorioz gertatu da: faktore ekonomikoak (korsikar askoren emigrazioa eta ondorioz populazio jaitsiera, gizarte tradizioaletik gizarte modernora igarotzea, etab.), giza faktoreak (gizarte esparru askotan frantsesa ezartzea) eta faktore demografikoak (landa-eremutan lanik ez izateagatik, bertako biztanle askok bertatik alde egin dute).

Hiriko guraso askok seme-alabei frantsesez hitz egiten irakatsi dietenez, korsikerak hirian duen lekua nahiko murrizta da. Gainera, korsikera etorkizunik gabeko hizkuntza zenaren ideia nahiko zabaldua egon da urteetan zehar. Hori dela eta, korsikeradun askok uste izan du korsikera erremediorik gabe galtzeko kondeneturik dagoela. Hori guztiari gazteen erabilera eza gehitzen badiogu, egoera okertu besterik ez du egiten. Hala ere, korsikeraren irakaskuntzak izan ditzakeen ondorioen zai dago Korsikako gizartea.

#### 4.5.2. IRAKASKUNTZA

Haur hezkuntzan, eskola batzuek besterik ez dute korsikera irakasten hautazko ikasgai modura. Haur gutxi batzuek bakarrik jasotzen dituzte korsikerazko klaseak.

Lehenengo hezkuntzan, berriz, eskola gehienetan irakasten da korsikera. Ikasleen %76ak jasotzen zituen 1995. urtean asteen sei orduz korsikerazko klaseak. Hiru urte beranduago egindako estimazioen arabera, berriz, %85ak ikasten zuen korsikeraz. Hala ere, data korsikeraz jarri izan den edota korsikar abesti bat irakatsia izan den klase batzuek korsikerazko klase gisa izendatuak izan dira ([www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm)). Hori dela eta, aurreko datuak, korsikerazko klaseei buruzko datuak, nahiko erlatiboak direla esan dezakegu .

Bigarren hezkuntzari dagokionez, hemen ere datuak oso zehatzak ez diren arren, lehenengo bi urteetan ikasleek korsikera ikasiz jarraitzen dute. Hirugarren urtean, berriz, aldaketa garrantzitsu bat gertatzen da, ikasleek korsikerarekin batera beste hizkuntza erromaniko bat ikasi behar baitute. Honek guztiak noski, korsikeraren eremua gehiago mugatzen du.

Bestalde, badago "Scola Corsa" deituriko mugimendu garrantzitsu bat. Honek umeentzako liburuak argitaratu eta helduentzako eskolak antolatzen ditu. Horrez gain, "A Caspa" irakasle elkarteak korsikeraren derrigorrezko irakaskuntzaren aldeko borrokan dihardu. Herri mugimenduak egin duen presioari esker korsikeraren egoerak hobera egin du irakaskuntzan: Korsikar hizkuntza irakasteko irakasle berriak kontratatzea, korsikera irakasteko irakasleen CAPES-a Corti-ko Unibertsitatean eta abar.

#### 4.5.3. ARLO JURIDIKOA

Korsikerak ez du tokirik epaitegietan. Epaiketa guztiak frantsesez egin ohi dira. Noizbait, akusatuek frantsesez ez dakien kasuren batean, korsikera erabili izan da, baina orokorrean abokatuek, epaile eta magistratuek ez dute sekula korsikeraz hitz egiten. Ez dago itzulpen zerbitzurik korsikeraz hitz egiten duten pertsonentzat.

Epaitegiko administrazioak frantsesez dauden dokumentuak onartzen ditu soilik, beste guztiak baztertu egiten ditu. Beraz, frantsesa da epaitegiko hizkuntza bakarra.

#### 4.5.4. ZERBITZU PUBLIKOAK

Frantziako gobernuak ez du korsikeraren aldeko jarrera sendorik hartu. Batez ere gizartearekin harremanetan den arloetan ikus daiteke jarrera hori. Korsikako bertako administrazioak ere ez du korsikeraz dauden dokumentuen presentzia ziurtatzen, ezta hiritarren aurreko harremanetan ere. Beraz, administrazioan orokorrean, korsikerak erabilera txikia du. Hori dela eta, dokumentu gehienak



frantsesez daude nahiz eta zerbitzu batzuetan korsikeraz mintzatzea posible den (zerga-zerbitzuak, etab.).

Nahiz eta Korsikako administrazioan bertan korsikerak toki txikia izan, bertako agintaritzak kontuan hartzen du korsikera ezagutzea langile berriak kontratatzeko garaian. Horrez gain, bertako langileentzat korsikerazko klaseak jarri ditu abian.

Baldintza hauek ikusirik, korsikarrek administrazioan frantsesa erabiltzeko joera dute. Korsikar izena bera erabiltzeak militantzia ekintza gisa interpretatzen dute administrazioiko langile batzuek.

#### 4.5.5. KOMUNIKABIDEAK

Badira korsikera hutsez idatzita dauden egunkariak, besteak beste *Scontru* da horietako bat, 5000 alekoa. *U Ribomdu*, 20 000 alekoa berriz, elebiduna da. *Corse Matin*, *Nice Matin* eta *La Corse* berriz frantsesezko egunkariak dira, zati txiki bat soilik izaten dute korsikeraz.

Bestalde, badira korsikera hutsez dauden eta ale kopuru handia duten aldizkariak: *Arriti* aldizkariak esaterako 20 000 ale argitaratzen ditu eta korsikera hutsez dago, baita *Paese* eta *Afiarak* ere. *Rigiru* noizbehinka argitaratzen den kultur aldizkaria da, eta honek ere 20 000 ale ditu, korsikera hutsez.

*Radio Corsica Frequenza Mora* irratiak 30 ordu eskaintzen dizkio korsikerari, eta korsikarren %30ek aditzen dute normalean. Badira korsikerazko saioak izaten dituzten beste irrati batzuk, besteak beste *Alta Frequenza* (korsikeraz 40 ordu eta korsikarren %20 entzule), RADECEC irrati kooperatiba, *Voce Nustrale*, eta *RCI* eta *Porto Vecchio* irrati pribatuak eta abar. Bestalde, France Inter irratiak eta RMC (Radio-Monte-Carlo)k noizbait korsikar hizkuntzaz diren saioak ekoiztu izan dituzte.

Telebistan, berriz, korsikerak ez du presentzia handiegirik. France 3 katean asteen 40 minutuko programak ematen dituzte korsikeraz, eta nahiz eta denbora gutxiak izan ikusle asko dituzte ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors)) .

#### 4.5.6. KULTUR PRODUKZIOA

Korsikeraz idatzitako liburu kopuru zehatza ez badakigu ere hurrengo datuek erreferentzia bat eman ahal digute. Iturri desberdinen arabera 1990. urtean korsikerazko 10 liburu, 1991. urtean 15 eta 1992. urtean 20 liburu argitaratu ziren, gehienak eskola-liburuak, poesia, eta eleberririk ziren ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors)). Beraz, liburu produkzioa eskasa da, nahiz eta hizkuntzaren ahozko erabilera hain txikia ez izan.

Tradiziozko musika da korsikar hizkuntzaren zutabe garrantzitsu bat. Izan ere, korsikeraz abesten duten talde askok arrakasta handia dute. Horietako batzuk mundu osoan zehar ere ezagunak dira: esaterako, *I Muvrini*. Hala ere, rock eta musika modernoan korsikeraren erabilera eskasa da.

Antzerkigintzan, talde batzuek korsikeraz aritzen dira, korsikeraz lana egiten dute, besteak beste: *U Teatrinu*, *Ghnomaccia*, *I Muvrini*, *I Chjari Aghjalesi*, *P. Guelfucci*, *I Surgenti*. Nahiz eta Korsikako Kultur Zuzendaritzak dirulaguntzak eman, talde hauen oihartzuna ez da oso handia.

Zinean, berriz, korsikerak oso toki txikia du, nahiz eta laburmetrai ugari egin diren korsikeraz. Badago filme bat *La Déchirure* korsikerara itzulia dena, baina gainerantzean esparru honetan korsikerak ez du indarrik.

Kultur elkarte ugari korsikera zabaldu nahi izan du hainbat bide jorratuz: korsikerazko klaseak, hitzaldiak antolatzea, hizkuntzaren inguruko jardunaldiak, herri tradizio eta artearen museoak sortzea, irrati kooperatiba bat sortzea, hiztegi gintzako datu base bat sortzea eta abar.

#### 4.5.7. LAN-MUNDUA

Langileren bat kontratatzeko garaian gutxitan eskatzen dute korsikeraz jakitea (Korsikako administrazioko lanpostu batzuetan eta irakaskuntzan izan ezik). Saltokietan, berriz, korsikeraren erabilera nahiko handia da, baina iragarkietan ez da bertako hizkuntzan ezer ere idazten, ezta ere entzuten. Izan ere, telebista eta irratiko iragarkiak frantsesez izan ohi dira, herri-mailako iragarkiren bat salbu. Produktuen etiketak frantsesez daude, eta orokorrean lan munduko hizkuntza frantsesa da.

### 4.6. KORSIKERAREN HIZKUNTZA POLITIKA ETA ESTATUS JURIDIKOA

Frantziako lege-esparruan korsikerak ez du estatus ofizialik. Hala ere, gainerantzeko hizkuntza gutxituekin konparatuz, korsikerak irakaskuntza arloan beste hizkuntzek ez dituzten eskubide batzuk ditu (ikus 4.9). Frantziar gobernuaren dekretu batean (1974), korsikeraren irakaskuntza arautzen da (Deixonne legearen aplikazio bat da).

Bestalde, Savary zirkularrak (1982) korsikeraren irakaskuntza baldintzak berriro arautu zituen, batez ere lehen hezkuntzako baldintzak. Honekin loturik, esan daiteke gaur egun frantziar gobernuak neurri batean korsikeraren erabilera onartzen duela irakaskuntzan.

Korsikako gobernuak berriz korsikeraren erabilera sustatu nahi du dirulaguntzak emanez, pedagogia argitalpenak lagunduz, orokorrean korsikerazko liburuen edizioa bultzatuz eta korsikeraz irakatsiko duten irakasleei formazioa emanez.

Kulturako Kontseiluak 1989. urtean koofizialtasun kontzeptua aipatu zuen. Oinarri sendorik gabeko gertaera bada ere, aipatze hutsak garrantzia badu frantsesa hizkuntza ofizial bakarra den herrialde batean.

Bestalde, nahiz eta batzuetan horrelako aipamenak entzun, korsikarrek ez dute konfidantza handirik agintariengan. Agintariak korsikeraren aldeko adierazpenak egitean euren politika sustatzeko bidea besterik ez dela uste dute, agintariak hartzen dituzten neurriak oso urriak dira herritarren iritziz ([www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors](http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors))

## 4.7. KORSIKERAREN BEHERAKADAREN ERAGILEAK

Hirugarren Errepublika garaian (1870-1940) frantsesa jakitea derrigorrezko bihurtu zen uhar-tean; hau da, eskoletan, epaitegietan eta baita administrazioan ere. Italiara desagertu egin zen eta korsikerak, berriz, ahoz-kotasuna mantendu zuen, harreman informaletakoa. Beste arlo guztietan frantsesa ezarri zen. Beraz, orduko Frantziako gobernuak korsikerari eremu formaletan zuen ahalmena baztertu zion.

Hala ere, frantsesa ez zen une batean zabaldu, prozesua astiro joan zen. XIX. mendean adibidez, frantsesak ez zuen ahozko erabileran presentzia handiegirik. XX. Mendean, berriz, gauzak aldatu egin ziren. XX. mende hasieran, lehenengo hezkuntzaren irakaskuntza derrigortu zen, eta frantsesez ziren kur-tsoak. Honek aldaketa handiak ekarri zituen. Aldaketa honek korsikeraren eremua ahultzeaz gain aldaketa morfologiko, lexikal eta sintaktikoak ekarri zizkion hizkuntzari.

Historian zehar Frantziako gobernuak izandako politika zentralistak eragin handia izan du hizkuntzaren bilakaeran. Korsikera ahuldu egin da frantsesaren mesedetan eta horretarako oinarritzko lan-tresna izan da irakaskuntza. Hala ere, atal honen atarian aipatu bezala, bestelako faktore batzuek eragina izan dute korsikeraren bilakaeran.

Besteak beste, faktore ekonomikoek eta demografikoek korsikeraren egoera okertu dute. XIX. mendetik aurrera ekonomia egitura aldatu egin zen. Enpresak sortu, eta kapitalismoak indar hartu zuen. Honen ondorioz, Korsikako biztanle asko hirietara joan zen edo metropolira alde egin zuen. Bestalde, turismoak ere etorkinak ekarri zituen Korsikara. Honek guztiak korsikera ahuldu zuen, kanpotar askok ez baitzuen bertako hizkuntza ikasi, administrazioan edo eskoletan frantsesa baitzen nagusi.

Bestalde, transmisioa gaur egun ez da oso indartsua. Korsikeradun askok galdu du hizkuntza tradizioa ([www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm)).

## 4.8. KORSIKAKO EGOERA POLITIKO BEREZIAK KORSIKERAN IZAN DUEN ERAGINA

Napoleoniar gerren ondoren, metropolikoek errepresio bideak jarri zituzten martxan korsikarren aurka. Honek guztiak korsikar biztanleen sentimendu nazionalista pu-ztu egin zuen. Korsikarren errebindikazioak inoiz baino indartsuagoak izan ziren 70. hamarkadan. 1972. urtean Hezkuntza Nazionalako Ministerioak korsikeraren hautazko irakaskuntza ukatu zuen "korsikar dialektoak ez zuelako ez batasunik ezta kodifikaziorik ere". 1974. urtean korsikera "hizkuntza erregional" gisa onartu zuen Frantziako gobernuak, eta hautazko ikasgai modura irakatsi zitekeen, hau da, Deixonne Legearen aplikazioa onartu zen.

Beranduago, 1982. urtean, Korsikak lurralde kolektibitatearen estatus berezia lortu zuen. Hala ere Korsikako nazionalistek lanean jarraitzen dute benetako lurraldetasuna lortu ahal izateko.

Hala ere 1991. urtean negoziazio ugariren ondoren onartu zuen Parisko Nazio Asanbladak Korsikako lurralde kolektibitate estatusaren legea. Lege honek estatus berri bat eman zion Korsikari: "Korsikako Asanblada" bat eratzeko hauteskundeak izan ziren. Batzorde honek garapeneko, hezkuntzako eta komunikabideetako aferetan erabakiak hartzeko eskubide batzuk edukiko zituen. Frantziako zentralismoa kontuan izanda, lorpen garrantzitsua izan zela esan daiteke.

Korsikako Lurralde kolektibitatearen legea Korsikako nazionalistekin batera negoziatu zen. Hizkuntzari buruzko konpetentziak ez daude oso argi zehaztuta: Korsikar kultura eta hizkuntzaz 44., 52., eta 54. artikuluetan besterik ez da hitz egiten. Korsikako Asanbladak kultura, irakaskuntza, irratia eta telebista arloetan plan bat diseinatzeko eskubidea du, guztia "korsikar hizkuntza eta kultura" sustatzeko. Hala ere, ez dago korsikerari buruzko artikulua zehatz eta berezirik. Hona hemen 44. eta 52. artikulua:

**44. artik.** *"Korsikako ekonomia, gizarte eta kultura Kontseiluari ere derrigorrez kontsulta egin behar zaio kultura edo irakaskuntza arloko edozein proiektu martxan jarri aurretik, beti ere korsikar hizkuntza eta kultura babesteko edota zabaltzeko bada"*

*"Proiektuen emaitzen berri eman behar zaio era berean" (...).*

**52. artik.** *"Korsikako lurralde kolektibitateak antolatzen dituen heziketa-ekintzak Batzordeak aztertu eta baztertu / onartuko ditu (...)*

*Asanbladak eratuko du, baldintza berarekin, korsikar hizkuntza eta kulturaren irakaskuntzaren garapenerako plan bat, ikasgai hau eskola ordutegi barruan sartzeko aukerak aztertuz. Aukera hauekin Korsikako lurralde kolektibitateak eta Estatuak hitzarmen bat egin beharko dute.*

Legea onartu eta egun batzuk beranduago, Kontseilu Konstituzionalak Korsikako lurralde kolektibitatearen estatusari buruzko legearen 1. artikulua indargabetu zuen, konstituzioaren aurkakoa zela argudiatuz. Artikulu honek honela zioen:

**1. artik.** *"Frantziar Errepublikak kultura eta identitatea gordetzeko eta interes ekonomikoak defendatzeko eskubidea bermatzen dio korsikar herriari, frantziar herriaren osagarri denari, eta korsikar herriaren kultur komunitate eta komunitate historikoari. Uharte izateagatik dagozkion eskubideek nazio batasuna, Konstituzioa, Errepublikako legeak eta estatus hau errespetatu beharko dituzte."*

"Korsikar herria" hitzek sortu zuten eztabaida. Batzuentzat, espresio hori "Errepublika bakarraren eta zatiezinenaren" aurka zihoan. Besteentzat espresio horrek gainerako herrien (bretoiaren, euskaldunaren, alsaziarraren eta abarren) errebindikazioak indartu zitzaizkeen. Gobernuak lehenengo aldiz onartu zuen korsikar herri bat bazela. Frantziar askoren izua sortu zuen horrek hala ere, talde askok bere eskubideak eskatuko zituztenaren beldurrez. Hori guztia dela eta, 1. artikulua indargabetu zuten. Korsikako abertzaleek aldiz, "korsikar herria" espresioa beharrezkoa zela adierazi zuten, aitorpenik gabe euren estatusa oinarririk gabekoa izango zen bestela.

1992.eko ekainaren 26an Korsikako Asanbladak Korsikeraren ofizialtasunari buruzko mozioa onartu zuen, ez ordea Errepublikak. Honek argi erakusten zuen Korsikako ordezkarien nahia eta aldarrikapena. Honen guztiaren ondorioz, itxaropena zapuztu egin zen.

#### 4.8.1. HITZARMEN BERRIA (2000) ETA 2002ko LEGEA

2000ko uztailaren 29an Korsikak autonomia handixeagoa lortu zuen konpetentzia gehiago lortu baitzituen. Besteak beste, nazio legeetan "aldaketak egiteko" askatasuna lortu zuen (Frantziako Parlamentuaren kontrolpean hala ere). Korsikako Asanbladak lortu zituen konpetentziak honakoak izan ziren: lurraldearen antolakuntza, ekonomia garapena, hezkuntza, lanbide heziketa, kirolak, turismoa, ingurumenaren babesa, azpiegituren gestioa eta garraiobideak. Nahiz eta konpetentzia hauek lortu, estatuak nazio politika kontrolatu eta bertan esku hartzeko ahalmena du. Parlamentuak esperientziazio hauek aztertu beharko ditu bi urtetik behin. Orduan erabakiko du Parlamentuak mantendu, aldatu edo atzera bota behar duen.

Nazio Asanbaldako diputatuek 2001eko maiatzean juxtu-juxtu onartu zuten Korsikari buruzko 2002ko urtarrilaren 22ko legea. Korsikar nazionalisten iritziz proiektu honek oinarri-oinarrizko beharrak besterik ez ditu asetzen, eta oraindik gauza asko aldatu behar direla uste dute. Oposiziokoek berriz ez dute uste lege proiektu hau dezentralizatzailea denik, baina beraien iritziz Korsikako "independentzia bultzatzeko lehenengo pausoa" izan daiteke.

Iritziak iritzi, Senatuak Korsikako lege proiektua aldatu zuen, batez ere legegintza eta erregelamenduzko transferentziako gaien ingurukoa eta korsikerako irakaskuntzaren ingurukoa. Senadoreek korsikeraren irakaskuntzako 7. artikulua aldatu zuten, hautazkoa dela azpimarratuz. Senadoreen arabera, korsikera Korsikako eskoletako ohiko ordutegiaren barnean ematen den ikasgaia da. Diputatuek berriz erabaki zuten korsikera Korsikako haur eskoletan eta oinarritzko mailako eskoletan emango zela. Konstituzio Kontseiluak azkenik Senatuaren erabakia onartu zuen. 2002ko urtarrilak 22ko erabakian Konstituzio Kontseiluak ebatzi zuen legeak onartzeko eskubidea Frantziako Parlamentuak zuela, eta ez Korsikako Asanbladak. Erabakiak erabaki, Kontseiluak korsikeraren irakaskuntza onartu du haur eskoletan eta oinarritzko mailako eskoletan, ohiko ordutegiaren barnean. Hala eta guztiz ere ikasgaiaren hautazko izaera azpimarratu du.

2002ko urtarrilaren 22ko legea, Korsikari buruzkoa martxan jarri zen. Korsikar nazionalisten iritziz, lege honek ez ditu beharrak asetzen, porrot bat da. Izan ere, aldaketak egiteko eskubidea badute ere, Frantziako gobernuak azkeneko hitza du eta korsikeraren irakaskuntza hobetzeko edozein proposamen ukatu dezakete.

#### 4.9. KORSIKERAREN ITXAROPENA: IRAKASKUNTZA

Savary zirkularrean honela ipintzen du: "irakasgai hau (korsikerarena) ikasleek eta irakasleek nahi badute ezarriko da" eta "ez da erregioetako hizkuntza eta kulturaren derrigorrezko irakaskuntza inposatuko. Irakasleak ere ez daude behartuta klase horiek ematera".

Lehen, korsikerazko klaseak ohiko ordutegitik kanpo irakasten ziren, astean behin eta gutxienez 15 ikasle eskatzen bazuten. Korsikeraren ofizialtasunari buruzko 1992ko ekainaren 26ko mozioaren ondoren, 5. artikulua honela zioen: "1992-93ko ikasturtean korsikera irakatsi zaie Korsikar Akademiako ikasle guztiei, maila guztietakoei, gutxienez 3 orduz".

Errepublikak ez zuen mozio hau onartu. Korsikako Asanbladak korsikera ikasteko eta korsikeraz hitz egiteko eskubideak onartzen ditu. Ereku publiko guztietan erabiltzeko eskubidea aitortzen du (3. art), korsikerazko toponimia bultzatzen du (4. art) eta korsikerazko irakaskuntza sustatu nahi du (5. art). Esan daiteke mozioak ez duela baliorik, Korsikako Asanbladak ez baitu neurri horiek ezartzeko ahalmenik edo eskumenik.

Ez dago korsikerazko eskola publikorik hezkuntza publikoan. Frantziako legediaren arabera, korsikera ez da derrigorrezkoa eskoletan, irakaskuntzako hizkuntza bakarria frantsesa da. Hala ere, 1991eko Korsikako Estatutuko 52. artikulua irakaskuntzako hizkuntzaren inguruko xehetasunak ematen ditu:

**52. artik.** *Asanbladak eratuko du, baldintza berarekin, korsikar hizkuntza eta kulturaren irakaskuntzaren garapenerako plan bat, ikasgai hau eskola ordutegi barruan sartzeko aukerak aztertuz. Aukera hauekin Korsikako lurralde kolektibitateak eta estatuak hitzarmen bat egin beharko dute.*

Azken urte hauetan korsikerazko irakaskuntzaren aldeko ahalegin handiak egin dira Korsikan : CAPESaren sorrera, pedagogia ikuskatzaileak izendatzea, hizkuntza laborategien sorrera, pedagogia tresna berrien garapena, maila desberdineko liburuen edizioa, eta abar.

Korsikerazko irakaskuntza %17 igo da lau urtetan, 2000. urtetik 2004. urtera. Korsikako Akademiako 47 000 ikasletik 31 000 ikaslek ikasten du korsikeraz, 2000. urtean berriz 26 000 ikasle ziren (Agence France-Presse, 2005).

Lehen hezkuntzan ikasleen %92k jasotzen ditu korsikerazko klaseak, 2000. urtean baino %19 gehiago.

Bigarren hezkuntzan, ikasle guztiek dute korsikera ikasteko aukera, baina hautazko ikasgaia da.

2004-2005 urteetan 6. eta 5. mailako ikasleen %70ek eta 4. eta 3. mailako ikasleen %35ek ikasten du korsikera.

Lizeoan ere goraka doa korsikerazko klaseetan izen ematen duten ikasleen kopurua: %13tik %20ra pasa da. Lanbide-lizeotan, ikasleen %40k aukeratu du korsikera hautazko ikasgai gisa (Agence France-Presse, 2005)

Irakaskuntza elebiduna ere goraka doa. Lehenengo klaseak gobernuak korsikeraren aldeko adierazpenak egin eta gero sortu ziren 1996. urtean lehen hezkuntzan eta 1999. urtean bigarren hezkuntzan. Bertan 2900 eta bigarrenean 850 ikasle daude. Eskola elebidunen eskaera gero eta handiagoa da. Korsikerazko klaseen aldeko interes horrek bultzada eman diezaioke erabilerari eta garrantzitsua izan daiteke gazteen erabilera indartzeko.

## 5. HIZKUNTZA GUTXITUEN EDO “LANGUES RÉGIONALES”EN INGURUKO HIZKUNTZA POLITIKA FRANTZIAN

Gaur egun Frantziako metropolian 24 hizkuntza dago, 1999. urtean Hizkuntza frantsesaren Nazio Institutuko zuzendariak, Bernard Cerquiglinik, egindako txostenaren arabera. Hizkuntza guztiek ez dituzte eskubide berak. Itsasoz bestaldeko lurraldeetako hizkuntzen eskubideak, adibidez, desberdinak dira. Hala ere, atal honetan metropoliko hizkuntzetan eragina duen hizkuntza politika azalduko dut.

Hizkuntzen inguruko lege sistema berria da Frantziako historian. Lege multzo horretan lau lege aipatuko ditugu: 1951ko Deixonne Legea, 1975eko Haby Legea, 1975eko Bas-Lauriol Legea eta 1994ko Toubon Legea.

### 5.1. 1951ko DEIXONNE LEGEA (INDARGABETUA)

Tokian tokiko hizkuntza eta dialektuen irakaskuntzarako 1951ko Deixonne Legeak bi helburu ditu: Hizkuntza frantsesa defendatu eta era berean beraiek “langue régionales” deiturikoei babesa eman. Lege hau hizkuntza legea eta irakaskuntzarako legea da era berean. Bere garaian garrantzia handia izan zuena, ofizialki hizkuntza erregionalen biziraupen eskubidea aitortzen baitu (1. artik.)

Irakaslea ez dago tokian tokiko hizkuntza irakastera behartua, baina eskaera egiten bada irakatsi dezake. Astean tokian tokiko hizkuntzari buruzko ordu bat edo bi eman ditzake. Irakasgai hau ez da derrigorrezkoa izango hautazkoa baino (3. artik.).

Beraz, tokian tokiko hizkuntzen irakaskuntza ez da derrigorrezkoa, eta gainera astean ordu bat edo biz eman daiteke soilik. Gainera ikasleek ez badute eskaerarik egiten, irakasleak ez daude hizkuntza erakustera behartuak. Gainera, lege honek ez du balio Frantziako hizkuntza gutxitu guztientzako, hizkuntza batzuen “pribilegioa” dela esan daiteke. Legearen 10. artikuluan zehazten da zein hizkuntzetarako balio duen: bretoierarentzat, euskararentzat, katalanarentzat eta okzitaniarentzat. Urteak igaro ahala, hizkuntza batzuek legearen babesa lortu dute ([www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm)).

### 5.2. 1975eko HABY LEGEA

Lege hau irakaskuntzari buruzkoa da eta Frantziako irakaskuntzako zenbait esparru arautzen ditu. Artikulu bakarra mintzatzen da tokian tokiko hizkuntza gutxituei buruz:

**12. artik.** *“Tokian tokiko hizkuntza eta kultura irakatsi ahal dira eskolatzean zehar”.*

Hezkuntza administrazio guztiek tokian tokiko kultura eta hizkuntzako irakaskuntza antolatzea ekarri du lege honek, baldin eta eskaera badago. Programa bereziak prestatu eta irakasleen formazioa prestatu behar izan da ([www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm)).

### 5.3. 1975eko BAS\_LAURIOL LEGEA (INDARGABETUA)

Frantsesaren erabilerari buruzko legea, Asanblada Nazionalan eztabaida bat baino gehiago sorrarazi duena, ez baitu hizkuntza gutxituen babeserako ekarpenik egiten.

Bas-Lauriol Legearen arabera, frantsesa derrigorrezkoa da kartel publikoetan edota iragarki komertzialetan, bai ahozkoan, bai idatzizkoan. Hala ere, testu frantsesaren ondoan *atzerriko hizkuntza* batean itzulitako testua ager daiteke.

Legearen ezarpena eraikuntza publikoetan, garraio publikoetan, parkeetan etab. aplikatu da. Lege honek frantsesa babesten du (ingelesaren aurrean) baina ez die mesederik egiten hizkuntza gutxituei. Lege honek ez du Frantziako hizkuntza desberdinei buruzko xehetasunik ematen, frantsesa da bere kezka nagusia.

### 5.4. 1994KO TOUBON LEGEA (INDARREAN GAUR EGUN)

Hizkuntzaren erabilera arautzen duen lege honek ez du hizkuntza gutxituei buruz hitz egiten, 21. artikuluan izan ezik. Bertan zehazten da lege honek ez duela Frantziako hizkuntza gutxituen arloan dagoen legediaren aurka egingo, eta ez duela hizkuntza gutxituen erabileraren kontra joko ([www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm)).

## 5.5 HIZKUNTZA POLITIKA IRAKASKUNTZAN

Frantsesak Estatuko hizkuntza izaten jarraitzen du: parlamentuan, administrazioan, justizian, irakaskuntzan eta abar. Dirudenez, Frantzian ez dago hizkuntza gutxiturik. Hala ere, zenbait herritarrek egindako presioari esker, hizkuntza gutxituen irakaskuntza onartu egin da, neurri batean behintzat.

### 5.5.1. POLITIKA OFIZIALA

1995eko apirilak 7ko 95-086 zirkularrak, Frantziako hizkuntza eta kultura erregionalen irakaskuntzari dagokionak, nazio ondarea zaintzeko konpromezua hartzen du eta irakaskuntza honetan estatuaren konpromezua ziurtatzen du.

### 5.5.2. BORONDATEZKOA

Gaur egun tokian tokiko hizkuntzen irakaskuntza ez da derrigorrezkoa. Irakasleen eta ikasleen borondatez irakasten da. Hala ere, lehen ez bezala, gobernuak ez du debekatzen hizkuntza gutxituen irakaskuntza, beti ere legearen arauak jarraitzen badira. Herritar batzuek egindako presioa dela medio, gobernuak hizkuntza gutxituen irakaskuntza arautu behar izan du. Honela, lehen hezkuntzan, hizkuntza gutxituen irakaskuntzan bi aukera daude: batean hizkuntza astean ordu batetik hiru ordotara irakatsi daiteke, eta bestean irakaskuntza elebiduna izan daiteke.



### 5.5.3. IKASLE KOPURUA

1999ko uztailleko *Le Monden* azaldutako artikulu batean Hezkuntza Nazionalako datuak azaldu ziren, bertan jartzen zuen 335 000 ikaslek ikasi zutela eskualdeko hizkuntza. Frantzia osoan hamar milioi inguru ikasle dago. Bestalde, ikasleen banaketa ez da berdina hizkuntza guztietarako. Esate baterako, okzitaniar ikasleen %56ak bere hizkuntza ikasten duen bitartean, Frantziako estatuan bizi diren kataluniar ikasleen % 5ek besterik ez du katalanaren ikasgaia jasotzen.

### 5.5.4. IKASTETXE ELKARTEAK

Gaur egun, Frantzian irakaskuntzan nolabaiteko eskubidea duten hizkuntzak honakoak dira: okzitaniarra, euskara, alsaziera, katalana, bretoierra eta korsikera.

Baina, eskola pribatuek lortzen dute azken finean hizkuntza gutxituen irakaskuntza programa nahiko txukuna eta osatua. Hezkuntza Nazionalak arautu ditu eskola pribatu hauek. Eskolek elkarte izaera dute. Britainian Diwan eskolak daude, Euskal Herrian Ikastolak, Okzitaniar Calandretak, Katalunian Bressolak eta Alsazian ABCM Zweisprachigkeit-ak.

Elkarte izaera duten eskolek zailtasun handiak izaten dituzte zenbaitetan, batez ere zailtasun ekonomikoak. Hori dela eta, hizkuntza gutxituen aldeko irakaskuntza prestatzen duten elkarte hauetan jarrera milintantea dago, bai gurasoen eta bai irakasleen aldetik. Horri esker jarraitzen dute aurrera elkarte izaerako eskola hauek.

### 5.5.5. PEDAGOGIA ERREGIMENA

2001eko uztailan Frantziako gobernuak 2001-733 dekretua egin zuen, "hizkuntza erregionalen" Kontseilu akademikoa sortuko zela esaten zuena. Kontseilu akademikoa tokian tokiko hizkuntzen hezkuntza politikaz arduratuko zen. Dekretuaren 2. artikulua arabera, "eskualdeko hizkuntzen" Kontseilu akademikoak bertako hizkuntza eta kultura sustatu beharko zituen. Dekretu honek jarraipena izan du 2002ko apirilaren 4ko akordioarekin. Honekin, estatuak irakaskuntza elebiduna onartzen du, baina ez da sistemizatzen. Hala ere, estatu Kontseiluak atzera bota zuen proposamen hau eta gauzak zeuden bezala geratu ziren.

## 5.6. HIZKUNTZAK ETA GOBERNU ADMINISTRAZIOA

### 5.6.1. EPAITEGIAK

Zaila da hizkuntza gutxituren bat aditzea epaitegietan. Noizbait euskaraz, korsikeraz, alsazieraz entzun izan da epaitegietan, baina ez da eskubide bat: epaileak hizkuntza ezagutu behar du eta erabiltzeko borondatea izan behar du. Herri kontseilutan erabil daiteke bertako hizkuntza, baina idatziek beti frantsesegon egon behar dute. Munduan zehar itzultzaileak erabiltzen dituzten arren, Frantzian ez da horrelakorik egiten, etorkin batzuren kasuan izan ezik.

### 5.6.2. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK

Idatzi guztietarako frantsesa da derrigorrezkoa, hala ere funtzionarioek nahi badute bertako hizkuntzan hitz egin dezakete. Zerbitzuetan beraz, tokian tokiko hizkuntzaren erabilera ez da eskubide bat.

Errepideetako errotulazioetan berriz frantsesa bakarrik erabiltzea da araua, baina horren inguruan egin den presioa eta gero, estatuak legea arindu behar izan du, neurri batean. Gaur egun beste hizkuntzetan daudenak ere aurki daitezke, modu apalean bada ere ([www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm](http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm)).

## 5.7. IKUSENTZUNEZKOAK

Frantsesak bakarrik zuen 1982. urtera arte komunikabideetan agertzeko eskubidea. Ordan, 1982ko uztailaren 29ko legea atera eta gero, adierazpen modua aukeratzeko askatasuna etorri zen.

2002ko abuztuak 1eko legeak, komunikazio askatasunari buruzkoak, telebistan eta irratan metropolian hitz egiten diren hizkuntzei laguntza eman behar zaiela dio. Horrela bada, *Radio France* tokian tokiko hizkuntza batzuei ordu batzuk eskaintzen dizkie. Baina, irrati guzietan ez dute gauza bera egiten.

Lege hau bretoieraren, okzitaniaren, euskararen, katalanaren, korsikeraren eta alsazieraren mesedetarako pausoa izan da, baina pauso txikia. Izan ere, orokorrean irrati eta telebistek astean ordu bat edo bi eskaintzen dizkiete hizkuntza gutxituei, eta oso denbora murrizta da. Irrati libreak egin dute hizkuntza gutxituen aldeko apusturik handiena.

## 5.8. FRANTZIA ETA EUROPAR KARTA

Europar askok Frantziaren jarrera kritikatu du berandu sinatu baitzuen Hizkuntza Gutxituen Europar Karta. Frantzia ondoko herrialdeek (Italiak izan ezik) lehenago sinatu eta berretsi zuten Karta. Hala ere, Frantziak eragozpen handiak jarri ditu Karta sinatzeko eta oinarrizko eskaera batzuk besterik ez ditu sinatu.

1999ko maiatzean sinatu zuen Frantziak Budapesten Europar Karta. Kartan proposatzen diren 98 konpromezutatik 39 besterik ez zituen hartu. Frantziak beste herrialdeek baino konpromezu gutxiago hartu ditu. Karta berresterakoan zehaztu zen konpromezuen onura jasoko zuten hizkuntzen zerrenda: alsaziera, bretoiera, euskara, katalana, korsikera, flandiera, probentzera eta okzitaniara. Besteak beste, hurrengo konpromezuak sinatu zituen Frantziak:

**Irakaskuntza elebiduna** zilegi litzateke haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan beti ere familiek eskatzen badute. Hala ere, ez da derrigorrezkoa izango. Bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan kontuan hartuko dira ikasleen eskaerak. Irakasleen formakuntza ziurtatu beharko da.

**Administrazio eta epaitegietan** estatuko lege txostenik garrantzitsuenak hizkuntza gutxituetara itzuliak egon behar dute, nahi duenak eskuragarri izan ditzan.

**Komunikabideen** esparruan, Estatuak hizkuntza gutxituen emanaldi erregularrak sustatuko ditu eta egunkarrietan hizkuntza hauen erabilera bultzatuko du.

**Ekonomian**, enpresek nahiz eta pribatuak izan, ezin izango dute hizkuntza gutxituen erabilera debekatu. Kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa frantsesez idatzia egoteaz gain, hizkuntza gutxituetara itzulia egon beharko du.

### 5.8.1. LEGE ARAZOAK

1999ko ekainean, Errepublikako Konstituzio Kontseiluak onartu zuen Frantziak sinaturiko konpromezuak ez zirela Konstituzioaren aurkakoak. Kartaren hitzaurreko 7. artikuluan ordea bazen traba bat, bertan hizkuntza gutxituen hiztunen eskubideez mintzatzen zen. Hori dela eta, Konstituzio Kontseiluak Kartaren berrespena blokeatzeari ekin zion. Kartaren Hitzaurreko 7. artikuluan honakoa jartzen zuen: "hizkuntza gutxituetan mintzatzeko eskubidea oinarri-oinarrizkoa da, bai eremu publiko bai pribatuan, Nazio Batasunaren eskubide zibil eta politikoei buruzko Paktuan oinarrituta"

1999ko ekainaren 23an lehen ministro Lionel Jospinek Errepublikako lehendakariari Konstituzioan aldaketa batzuk egiteko eskaera luzatu zion Europako Karta onar zedin. Frantziako lehendakariak ordea, ez zuen Errepublikako printzipioak aldatuko zituen inizatibarik hartu nahi izan. Hasteko, Konstituzio Kontseiluak dio Frantziako hizkuntza bakarra frantsesa dela. Honi loturik Kartan proposatzen diren konpromezuak Frantziako herriaren batasunaren kontra doazela uste du agintari askok. Erabaki honek haserrea sorrarazi zuen hizkuntza gutxituen aldeko herri mugimenduetan.

Estatuko Kontseiluak Europar Kartako konpromezuak aztertu eta gero horietako 35 bideragarriak direla ziurtatu du, ez baitoaz Konstituzioaren aurka. Hala ere, jakinarazi du irakaskuntza, kultura eta komunikabideen arloan ezin izango dela berrespen formalik egin, jadanik esparru hauen mugak alde zehatzak zehaztuta baitaude.

Gaur egungo Frantziako Konstituzioa 1958koa da, Aljeriako gerraren ondoren egindakoa, eta askoren ustez ez da gaur egungo errealitateara egokitzen. Zenbaitetik aldaketaren beharra aldarrikatzen du batez ere irakaskuntza, komunikabide eta kultura alorrean, gabezia handiak baitaude.

1999ko uztailean Presidenteak Errepublikako batasunaren izenean berriz ukatu zuen Konstituzioa aldatzeko aukera. Konstituzioa aldatu gabe, ezin da Europar Karta berrestu, eta hartutako konpromezuak indargabetuak geratzen dira honela.

Kartaren berrespenaren kontra daudenek diote Errepublikaren aurkako doala. Alde daudenek berriz eskubide demokratiko bat dela adierazten dute.

Dena dela, Frantziak onartu behar du bere lurraldean nazio asko dagoela, eta hizkuntza asko. Horren aurrean ezin du begirik itxi. Bertan dauden kultura eta hizkuntzak babesteko neurriak hartu beharko lituzke. Frantziako gobernuaren politika berdintasunean oinarritzen da, baina hizkuntza gutxituko hiztunek ezin dute berdintasunari buruz hitz egin beraien hizkuntzean ikasi ezin dutenean, beraien eskubidea ukatzen zaien bitartean.

Azken urteotan Frantziako gobernuak "hizkuntza erregionalak" babesteko lege eta dekretu batzuk jarri ditu martxan. Baina errealitatean, lege asko bertan behera utzi da edota ez da onartu, beti ere Konstituzioaren eta Errepublikaren aurkako dela argudiatuz. Europako Karta sinatzea aurrerapauso bat izan dela aitortu behar da, eta horrek hizkuntza gutxituen itxaropena piztu zuen. Hala ere, ekimena ez berrestearekin batera argi azaldu da Frantziako hizkuntza politikaren asmo ahula eta hizkuntza gutxituak babesteko interes txikia.

## 6. FRANTSESAREN ALDEKO POLITIKA

Lehen frantsesaren aldeko legeak bazeuden ere, azken urteotako frantsesari buruzko legeak gailendu egin dira, gezurra badirudi ere frantsesa babesteko helburua dutenak. Neurri hauek ingelesaren indarretik babesteko hartu dituzte, European erabiltzen den hizkuntzarik zabalduena ingelesa bera baita. Hori dela eta, zenbait frantsesek uste du beraien hizkuntza egoera minoritario batean dagoela, ingelesak menperatu egiten duela, eta beraz babestu egin behar dela.

Kontuan izan behar da Frantziako gainerako hizkuntzek beherakada handia jasan behar izan dutela, frantsesaren nagusitasunagatik besteak beste, eta ez zaie jaramon handiegirik egin. Gainera, ingelesaren aurkako politika horrek ere hizkuntza gutxituei kalte egiten die, frantsesa bakarrik babestu nahi baita.

Gobernu frantsesak 1989ko ekainak 2an frantsesari buruzko dekretu bat sortu zuen: DGLF (Délégation générale à la langue française) egitasmoa. Dekretu honen bidez frantsesaren aldeko elkarte eta organismo publiko nahiz pribatuak sustatu eta koordinatzeko asmoa atera zen.

Frantziar gobernuaren helburu oso garrantzitsua da frantsesa bultzatzea, adibide gisa dugu 1994ko legea, frantses hizkuntzaren erabilerari dagokiona. Frantziar gobernuarentzat, Delegazioaren funtzio nagusia da frantsesaren aldeko lanean dabilzan elkarte eta pertsonak sentsibilizatzea. Hori dela eta, Delegazioak ondorengo elkarteekin egiten du lan:

- Hizkuntza frantsesaren Gorengo Kontseilua (kontsultarako, ikerketarako dena)
- Frantsesaren aldeko baliabideak bideratzen dituzten Ministeritza Departamentuak (hezkuntza nazionala, goi mailako irakaskuntza, ikerketa, industria, kultura, frankofonia...)
- Hizkuntza tresna duten lan-arloak (unibertsitate, ikerketa laborategiak eta abar), edota hizkuntza hedatzeko beharrezkoak direnak (komunikabideak, iragarkiak, ekonomia, kultura etab.)
- Frantsesa sustatzeko elkarteak

Frantsesaren Delegazio nagusiak Frantziar gobernuaren politika linguistikoa aplikatzen du azken finean, eta hiru oinarrizko helburu ditu:

- 1) Errepublikako hizkuntzaren, hau da, frantsesaren indarra ziurtatu.
- 2) Frantsesaren rol-a mantendu, hau da komunikazio internazionalerako tresna gisa duen rola.
- 3) Hizkuntza ugaritasuna errespetatu eta hizkuntza aniztasuna bultzatu.

Frantsesaren aldeko Delegazioa (DGLF (Délégation générale à la langue française) ) frantsesaren aldeko politika ongi bideratzen ari da, baina oraindik beste hizkuntza gutxituen alde gauza gutxi egin da. Frantziak kultura eta hizkuntza ondarea babesteko asmoa erakutsi badu ere, ekintzak falta dira, benetako hizkuntza politika martxan jartzea.

## 7. ONDORIO NAGUSIAK

Lanaren hasieratik ohartu gara Frantzian hizkuntza aniztasun handia dagoela, bai metropolian, bai itsasoz bestaldeko lurraldeetan. Korsikera, okzitaniera eta bretoieraren egoera aztertu eta Frantziako hizkuntza politikari gainbegiratu bat egin eta gero zenbait ondoriotara iritsi naiz.

Hasteko, hiru hizkuntzetan hiztunen tipologia antzekoa da. Hizkuntza gutxitu hauen hiztun gehienak nekazariak dira edo landa-eremuan bizi direnak. Orokorrean, hiztunak nahiko zaharrak dira, 60 urtetik gorako hiztun asko dago. Hizkuntza ezagutzen duten gazteen kopurua nahiko baxua da, eta gero eta guraso gutxiagok transmititzen die bertako hizkuntza seme-alabei. Orokorrean beraz, transmisioa eteten ari da. Bestalde hizkuntza gutxituetako hiztunek maila ekonomiko baxuagoa dute estatuko gainontzekoen mailarekin konparatuz gero. Hirietan berriz hizkuntza gutxituen hiztun gutxi dago. Honek trabak jartzen dizkio hizkuntzari, hizkuntzak garapena behar baitu aurrera egin nahi badu. Hizkuntzak gaur egungo egoerara eta berrikuntzei egokitzeko premia handia du.

Ezagutzari so eginez gero, hizkuntza gutxituen hiztun kopurua ez da oso handia: bretoierak %17, okzitanierak %14 eta korsikerak %60. Zalantzarik gabe, korsikera dago hobekien. Korsikaren egoera geografikoak eta historiak (1789an Frantzian sartu) eragina izan du bilakaera horretan. Hala ere, Korsikan gainontzeko beste lurraldeetan bezala, frantsesak indar handia lortu du azken mendean. Iraultza 1789an gertatu bazen ere eta Errepublikako hizkuntza bakarra frantsesa bazen ere, mende hasierara arte, hiru lurralde hauek (Britainia, Korsika eta Okzitanian) hiztun kopuru handia zuten, ia denek ezagutu eta erabiltzen zuten hizkuntza. Beraz, mende honetako gertaerak dira egoeraren eragile nagusi.

Erabilerari dagokionez, ezagutza eta erabileraren alde nahiko nabarmena da, eta handiagoa gazteengan. Frantsesa egoera formaletarako hizkuntza da, eta hizkuntza gutxiak informaletarako, nahiz eta frantsesak indar handia izan jada etxeko eta lagunarteko giroan. Frantsesak nagusitasun osoa du komunikabideetan, administrazioan eta epaitegietan. Honek guztiak prestigioa kendu die hizkuntza gutxituei. Irakaskuntzan hizkuntza gutxiak bere lekutxoak badu ere, oraindik orain frantsesa da nagusi.

Transmisio eta erabileraren jaitsiera azaltzeko eragile asko izan behar da kontuan: industrializazioa, migrazioa, snobismoa. Baina frantseseko irakaskuntzaren derrigortasunak (Jules Ferry legea, 1881-1884) eragin handia izan duela frogatu ahal izan dut. Izan ere, frantsesa aspalditik izan da epaitegietako edota administrazioako hizkuntza, baina frantseseko irakaskuntzak benetan aldatu du hizkuntza gutxituen bilakaera. Derrigorrezko irakaskuntzak hizkuntza gutxituen prestigioa asko aldatu du. Guraso askok ez zioten frantsesez besterik egiten seme-alabei ikasketetan zailtasunik ez izateko, traumarik ez sortzeko, baserritarrak ez zirela erakusteko eta abar. Frantseseko irakaskuntza XX. mendeko Frantziako hizkuntza gutxituen galeraren eragile nagusienetako bat izan da zalantzarik gabe. Frantsesa besterik ez erakustez gain ez da ahaztu behar eskolak hizkuntza gutxituetan mintzatzen ziren hurren aurka hartu zuen errepresio bidea.

Ildo honetatik, 1951ko Deixonne legeak garrantzia izan zuen, hizkuntza batzuen esistentzia onartu eta irakaskuntzan hizkuntza hauek emateko baimena ematen baitzuen. Hala ere, gehienez hiru orduko klaseak emateko baimena ematen zuen, hautazko izaera azpimarratuz. Baimen mugatu bat ematen zuen legea izan zen.

Irakaskuntzak hizkuntzaren galera prozesuan izan zuen garrantzia kontuan hartuz, Britainia, Korsika eta Okzitaniako herri mugimenduek hizkuntzaren alde egiterako garaian ere, irakaskuntza hartu zuten zutabe. Hizkuntza berreskuratzeko baliabide nagusizat hartu da irakaskuntza. Hori dela eta, oso garrantzitsuak dira herri ekimenez sortu diren eskola elkarteak. Dirulaguntzen bidez aurrera egin dute eta hauek bere izenak: Okzitaniako Calandretak eta Britainiako Diwan eskolak. Korsikako egoera bestelakoa da. Politikoki estatus berezia edukitzeak (lurralde kolektibitatearena) zenbait erabaki adosteko eskumena eman dio. Lurralde mailan, hauek ere, irakaskuntza alorretik hartu nahi izan dute hizkuntzaren aldeko biderik zuzenena, korsikerazko irakaskuntzari indarra eman nahian. Hala ere, Frantziako gobernuak izan du azken hitza erabakiotan, eta asmo on gehienak babesik gabe geratu dira bazter batean.

Hala ere, gaur egun hizkuntza gutxituak ikasteko aukera badago ere (nahiz eta ordu gutxikoa izan) guraso askok mesfidantza dute eta nahiago dute haurrak frantses hutsezko klaseetan matrikulatu. Honek erakusten du prestigio ezak eta hizkuntzaren etorkizun beltzaren ideiak oraindik eragin handia duela biztanleengan. Hori dela eta, administrazio, epaitegi eta lan-munduko hizkuntza erabilera arautzeak goerari mesede egingo liokeela uste dut.

Arestian esan bezala, irakaskuntzaren derrigortasunak galera handia ekarri badu ere, Frantziako zentralismoak eta bere legeak ez die mesederik egin hizkuntzei. XX. mende erdirarte Frantziak ez du hizkuntza politika zehatzik aplikatu, jakintzat hartzen zen hizkuntza bakarra frantsesa zela. Ikusi bezala, hizkuntza politikak badu bere eragina; hori dela eta Frantziako gobernuaren azken urteotako hizkuntza politika azalduko dut labur-labur.

Alde batetik Frantziak hizkuntza gutxituak sustatu eta babesten dituela onartu du. Lege eta dekretu batzuk jarri ditu martxan bai, baina Konstituzioaren aurka doan ezer ez du aurrera eramaten, beraz, asko indar gabe geratzen da. Bestalde, legeak aurrera ateragatik ere, gehienetan oztopo asko topatzen da bidean, eta legearen aplikazioa antzu geratzen da. Honekin guztiarekin loturik dugu Europako Kartaren afera bera ere. Konpromezuak sinatu zituen (beste herrialdeekin konparatuz gero berandu eta konpromezu gutxi), baina konpromezuak hutsean geratu dira ez dituelako aplikatu. Konpromezuak aplikatzeko Konstituzioa errespetatu behar zen, eta ez dute Konstituzioan aldaketarik egin nahi izan.

Bestalde, Frantziak frantsesa babesteko politika du martxan. Ingelesaren indarraren aurrean neurri batzuk hartzea erabaki zuten. Baina frantsesa babesteko ahalegin horrekin hizkuntza gutxituen aldeko politika ahulduta geratzen da.

Korsikerak, okzitanierak, bretoierak, altazierak, probentzerak baita euskarak berak ere beraien eremua edukitzeko eskubidea dute. Frantzian ez dago eskubide berdintasunik, hizkuntza hauetako hiztunei beraien hizkuntzean mintzatzeko eskubidea ukatzen baitzaie. Faktore ugari izan badu ere eragina hizkuntza hauengan, Frantziako gobernuak ere badu zer esanik. Hori dela eta, beharrezkoa da hizkuntza hauek babestuko dituzten benetako neurriak hartzea.

# INFORMAZIO ITURRIAK

## •Internet:

-Informazio orokorra:

<http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/france.htm>

-Bretoiera:

<http://www.diwanbreizh.org>

<http://langue-bretonne.com>

<http://www.ofis-bzh.org/index.php>

<http://perso.orange.fr/fanch.broudic/these/these3.html#textes%20et%20intentions>

<http://www.uoc.es/euromosaic>

[http://fr.wikipedia.org/wiki/%C3%89cole\\_Diwan](http://fr.wikipedia.org/wiki/%C3%89cole_Diwan)

-Okzitaniera:

<http://www.c-oc.org/calandreta/mp>

<http://www.ecole.orange.fr>

<http://membre.lycos.fr>

<http://www.multimania.com/simorre/oc/presoc.htm>

<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/occita/fr/i2/i2.html>

[http://www.wikipedia.org/wiki/%C3%89cole\\_Calandreta](http://www.wikipedia.org/wiki/%C3%89cole_Calandreta)

<http://calandreta.lemosina.fr/libreton.htm>

-Korsikera:

<http://www.accademiacorsa.org/langue.html>

<http://www.interromania.com/studii/sunta/comiti/normalisation.htm>

<http://www.linguacorsa.net>

<http://www.perso.orange.fr/christian.esteve/ochist.htm>

[http://www.portalingua.info/es/langues\\_traitees/Neolatines/](http://www.portalingua.info/es/langues_traitees/Neolatines/)

<http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/corsefra.htm>

<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/cors/fr/i1/i1.html>

## • Bibliografia

-Agence FRANCE-PRESSE, 1990,1999

-CSA-TMO, Etudes de marché, enquêtes et sondages, 1991, 1997

-CHIORBOLI, Jean. *La langue corse à la fin du XX siècle. Officialisation et conflit de normes*. Paris-Sorbonne.Thedel, 1999

-INSEE, Institut National de la Statistique et des études, 2002, 1994

-Média Pluriel Méditerranée-Montpellier, 1994

-THIERS, Jacques. *Papiers d'identité*. Ajaccio. Les Éditions Albiana, 1989